




BOOKTEGI

ipuin suizidak

A I T O R O Ñ A T E



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AITOR OÑATE

ipuin suizidak

AURKIBIDEA

IZAN ALA EZ IZAN

CISNE NEGRO

BIZITZAREN MARATOIA

ZITALKERIA

INSPIRAZIOAREN BIDE BIHURRIAK

MUSIKA- INDUSTRIAREN ARGILUNAK

PARETAREN BESTE ALDEAN

IZAN ALA EZ IZAN

Bukatu da.

Momentua iritsi da. Filosofo xume hau badoa.

*Beti izan naiz binakako kirolaria, eta minbizi alaeak Asun
–nire bihotzeko argia– lapurtu zidanetik, bizitzak ez du
zentzurik.*

Negua hurbil dago, baina ez nau izutzen.

Joxe Ramon Beotibar Andion

*PS: Nire fondo bibliografiko maitea Unibertsitateari uzten
diot.*

Esku batean ordenagailuko sagua dauka, bestean pilula potea.

Kurtsorea *Itxi*-ren gainean dago, baina ez da ixtera ausartzen.

“Horrela geldituko da”. Ohean eseri eta, Asunen argazkiari so, Trankimex tutua estutzen du. Pilula mordoxka bat isurtzen du eskuan. Berriro Asuni begiratzen dio, pilulei ondoren, eta ordenagailuaren pantailari azkenik. “Aldaketak gorde nahi dituzu testamentua.doc dokumentuan?”.

Minbizi alaena esaera arrotza egiten zaio. *Minbizi alua* hobeto? Baina *alua* hitz zatarra da; Asunen memoria zikinduko luke. *Alaena* ala *alua*?

Azken begirada eskaintzen die pastillei eta tutura itzultzen ditu.

Hasperen egiten du. “Hau ezin daiteke nire testamentua izan. A ze mordoiloa...”.

Bihar errepasatuko du, egun osoa du-eta. Trankimex bakarra hartuta, oheratzen da.

Hurrengo egunean, bart etxeratu zen moduan esnatzen da: bizarra egin gabe, dutxatu gabe, kaleko arropak erantzi gabe, suizidatu gabe.

Beste larunbat buruzuri bat.

Logelako pertsianaren zirrikituetatik eguzki izpiak sartzen dira, eta errukirik gabe betazalak ziztatzen dizkiote. Azkenean, amore eman eta jaikitzen da.

Etxean zehar ibiltzen da, noraezean. Kafesnea eskuan, egongelako leihoa irekitzen du: giro atsegina dago. Bizitza ez da hain zitala. Suizidioaren ideia lausotzen hasten da.

"Egun aproposa Koldorekin gelditzeko", pentsatzen du.

Koldo Albarez Iturriaga, literatur irakasle eta itzultzaile miretsia, Shakespeareren obran aditua. Hamaika gerra eta gerrillatako burkide eta adiskide.

Koldok beti izan du intuizio izugarria, ia-ia sobrenaturala, eta hala demostratzen du une honetantxe bertan telefonoz deituta.

– Joxerra, bizi haiz?

Eta hortxe daude biak, Parte Zaharreko betiko txokoan, bazkaltzen. Marinel kutsuko taberna zaharrak barreiatuta dauzkan zurezko mahai txikietako batean gotortuta, Koldok bere geziak jaurtitzen dizkie turistei: gure bizilekua inbaditu dute, dena artifizialagoa bihurtu digute, hiriaren jatortasuna suntsitu dute, globalizazioaren aurpegi itsusiena dira...

Zerbitzariak legatza ekartzen die.

– Hori duk-eta!! –dio Koldok, emaginak haur jaioberria besoetan jarri balio bezala–. Honelako momentuengatik merezi dik bizitzak, ezta, Joxerra?

Joxerrak sorbaldak jasotzen ditu erantzun modura.

Koldok itsaskiari buruzko disertazio bat hasten du, klase magistral bat. Joxerrak noizean behin baietz adierazten du buruaz, baina ez dio batere axola abakandoa txingarretan erreta edo egosita jan behar den.

Esposizioaren erdian, bi neskatila hurbiltzen zaizkie, irribarrez, jatetxeko karta eskuan. Mahai bueltan libre dauden bi aulkiak seinalatzen dituzte. Koldok goitik behera begiratzen die istant batez, eta gero eserlekuei.

– *Oui, oui, s’il vous plait, mademoiselles*– zutitu eta bere alboko aulkia ateratzen du, esertzera gonbidatuz.

Bi neskatilek, irribarrea galdu gabe, aulki bana hartu eta atzerritarrez betetako beste mahai batera eramaten dituzte.

– *Merci, messieurs!!*

Koldok segundo batzuk behar ditu bere onera etorri eta atzera esertzeko.

Sukaldaritzaren eta turismoaren hizpideak hain modu traumatikoan etenda, gero eta sarriago ateratzen den gaiari heltzen diote: iragana. Unibertsitatea, iraultza egiteko konspirazioak, amodioa... Jolas honek beti dakar irakaspen mingotsa: lehen, “gure garaian”, dena zen hobe.

Albariñoaren eraginez, Joxerra txolindu samar dago, eta bere adiskidearen jardunak areago zorabiatzen du. Gogoa Asunengana joaten zaio. Tristura sakon batek inguratzen du eta Koldoren hitzak airean galtzen dira. Iraganera bueltatu nahi luke.

– Tira, har dezagun kopa beste nonbait, hau turistaz lepo dago-eta– dio Koldok, lehor.

Joxerrak, kontua ordainduta, "ganorazko gintonik" baten bila jarraitzen dio bere lagun zaharrari Parte Zaharreko kale zaharretatik. Nonahi pilatzen den espezie guztietako jendea saihestuz, zurezko beste taberna batean sartzen dira. Zura, jatorra. Metala eta plastikoa, *vade retro*.

Eskuan konbinatu bana dutela, likore motei buruz ari da orain Koldo: rona, vodka, whiskya... Gaur egun jendeak ez omen daki whiskya behar den moduan edaten.

– Kaixo, Koldo! –ahots alai batek agurtzen du.

– Hara! –Koldoren begi alkoholizatuek denbora bat behar dute hurbildu zaien gaztea identifikatzeko.

– Sara naiz, literatur kritikakoa.

– Bai, noski, Sara. Arratsalde on, neskak –erantzuten du, Sarari eta haren atzean dagoen neskatila ilegorriari irribarre eginez–. Bueno, eta zer egiten dute gazte unibertsitario batzuek zaharrunoen kobazulo honetan?

– Sarritan etortzen gara! Oso modan dago.

– Eta Joxerra eta biok azken mohikanoak ginelakoan!

Joxerrak txistearen aurrean erreakzionatzera behartzen du bere burua. Sarak eskuarekin diosala egiten dio, apal.

– Tira, ba, ondo segi. Guk joan behar dugu, gelditu gara-eta.

– Parranda eguna, ezta? –dio Koldok maltzurki–. Aizue, gero bilatu gaitzazue, bai? Hiriko txoko ezkutu eta interesgarrienak erakutsiko dizkizuegu...

– Eeee, bale, bai. Bueno, ondo segi. Aio!

Koldo begira geratzen zaio urruntzen den bitartean.

– Sara, bai. Oso ikasle ona. Orain gogoratzen diat. Pentsatzen ari nauk despatxura deitu behar diodala: entregatu zidan azken lanean kontzeptuzko akatsen batzuk zeuden. Eta haren laguna ere, fin-fina, bai horixe.

– Nik betaurrekoduna ezagutzen diat. Artearen Filosofian zaukaat. Ikasle bikaina, egia esan.

– Betaurrekoduna? Beste neskak ez zeukan betaurrekorik, motel.

– Neska ez. Haiekin zegoen mutila. Ilehoria, altua. Izena ez diat oroitzen.

– A, bai. Bikaina, bikaina.

Koldok zotz baten laguntzaz hortzak miatzen ditu, bere pentsamenduetan galduta.

Joxerrak, zerbaitez mintzatzearren, bezperako dilema ekartzen du mahai gainera.

– Koldo, nola esango huke, estiloari begira: *minbizi alua* ala *minbizi alaena*?

Koldok hiru segundoz hausnartzen du eta hiru minutuz jarduten du honetaz eta hartaz, baina Joxerraren zalantzari irtenbiderik eman gabe.

– Bueno, ahaztu... Eta, bide batez, problema ontologiko bat: hire iritzian, zerk definitzen nau ni hoberen? *Filosofoa* ala..., ez dakit... *pentsalaria*?

Koldok zotza hausten du.

– *Filosofoa* gehiegitxo, ezta? Filosofoa duk ideia-sistemak sortzen dituen, ez besteenak irakasten dituen. *Pentsalaria*, aldiz, tira, bai, hori bahaiz,

teknikoki behintzat –bere epaia ematearekin batera, zotza, erdibituta, lurrera jaurtitzen du.

– Bueno, berdin duk –dio Joxerrak ahapetik, lotsatuta.

– Ez hartu txarrean, lagun! Hi irakasle itzela haiz: eruditua bat! –ahotsa apalduz, gaineratzen du:– Eta entzun ondo... Asun joan huan, bai, baina hi bizirik hago; uxatu laino beltz horiek. Ea, goazemak hurrengora!

Koldok ez dizkio duda linguistiko-filosofikoak argitu, are gutxiago existentzialak. “Gero errematatuko ditut mezua eta bizitza bera”, erabakitzen du, edalontzia kolpetik hustuta.

Baina balantzaka etxeratzen denean guztiz hordituta dago eta ez da ezertarako gauza.

Igande goizean alimaleko biharamuna dauka. Ispiluaren paretik pasatzean ezin dio aurre egin. Dezepzionatuta dago.

Sofan eserita, gaztarora joaten zaio gogoia.

Ikasle garaia liburutegiko filosofia sekzioaren eta hainbat zelula erdiklandestinoren artean eman zuen. Bere bi aurpegi horien arteko norgehiagokan, une jakin batean militantzia gailenduko zela zirudien. Ordea, arrakasta akademikoak ameskeriak baztertzera eramane zuen; burgestu zen. Fakultatean irakasle sartu eta filosofia existentzialean espezializatu zen: Euskal Herrian, Joxe Ramon Beotibar Existentialismoaren sinonimoa da. Bere kontuen arabera, Europako hamar aditu jantzienen artean egongo da, ziur.

Asun ezagutu eta gutxira, gurasoen etxetik alde egin eta berarekin bizitzen jarri zen. Bere mundua bihurtu zen: harekin hasten eta amaitzen zuen eguna. Koldok esaten zion amaren gonapetik Asunenera pasa zela zuzenean.

Urte pare batera, bizitza sozialari muzin egin zion. Desertatu zuen. Koldo salbu, ez zeukan interesik lehengo ez oraingo adiskideengan. Bizitza berri eta erosoko lankideei destainaz begiratzen zien, eta noizean behin topatzen zituen kamarada zaharrei ez ikusia egiten zien, destainaz begiratuko ziotelakoan.

Egun batean, Asunen bizialdia iraungi zen, iraultzen aroa bezalaxe.

Hura gabe ez dauka bizitzen jarraitzeko gogorik ez aitzakiarik. Baina hemen dago, galtzontzilotan, despedida nota txatxu bat amaitu ezinik.

Lo gelditzen da.

Berriro esnatzen denean ez dauka aje arrastorik, eta kanpoan ilundu du.

Eternitate bat ematen du sofán itzarrik, bere zorigaitzaz hausnartzen, bere buruaz errukitzen eta bere barrabilak hazkatzen. Mila urteko sufrimendua sentitzen du bularrean.

Azkenean, jaiki, eta igande arratsaldeetako berezko malenkonia aprobetxatzea erabakitzen du. “Amaitu dezagun ohar alu hau. Ostia, *alua!*”.

Ordenagailua piztu eta testamentua.doc irekitzen du.

Bukatu da.

Momentua iritsi da. ~~Filosofe~~ Pentsalari xume hau badoa.

Beti izan naiz binakako kirolaria, eta minbizi ~~alaenak~~ aluak Asun –nire bihotzeko argia– lapurtu zidanetik, bizitzak ez du zentzurik.

Negua hurbil dago, baina ez nau izutzen.

Joxe Ramon Beotibar Andion

PS: Nire fondo bibliografiko maitea Unibertsitateari uzten diot.

Tira, *alua* izan beharko da. Joxerraren sen obreristak zabarkeria hobesten du hizkera pedantearen aldean. Eta, gogoz kontra bada ere, asko jota *pentsalaria* baino ez dela onartu beharko dio Koldori.

Alea jacta est. Consummatum est.

Egon...

Pentsalaria? Ziur? Ez daki zer nolako inplikazioak dituen kontzeptu horrek, baina alarma bat piztu zaio. *Pentsalaria*: “Herriaren bizkarretik bizi den fartsantea”, erantzuten dio segidan bere baitan bizi den komisario politikoak. *Filosofoa*, berriz, puztuegia da. Zer egin?

Arazoa beratzen utziko du gauean, eta biharamunean, astearen hasierarekin, soluzioa berez agertuko da. Trankimex bat irentsi eta lo gelditzen da.

Astelehen goizak, alabaina, ez dio soluzioa ekartzen. Desilusioa baino ez. Eta laino beltzak.

Errutinan zentratzen da. Eskolak, tutoretza, emailak erantzun... Arratsaldean, azken klasearen ondoren, Alberto Sandonisen hitzaldira hurbiltzen da; elkarrekin joango zirela agindu zion Koldori.

Alberto Sandonis idazlea da, edo hori aldarrikatzen du berak, idazteaz gain ez baitu beste egitekorik. Ospea badu, ezin ukatu: eleberriak, zinemarako gidoiak, antzerkia... arlo denetan aritzen da, arrakastaz aritu ere.

Joxerrak hezur-muinetaraino mespretxatzen du: meritu propiorik gabeko *dandya* deritzo, bere familiaren dirutik goxo asko bizi den alferrontzia. Idazkera baldarra eta intxaur baten sakontasun intelektuala ditu, baina publikoarekin “konektatzen” du.

Koldori hitza eman dio, ordea, eta kultur etxeko sarreran dago ateak ireki baino hamar minutu lehenago, zain.

Koldo berandu agertzen da, emakume altu eta gazte baten besotik; giro literarioetan diotenez, etorkizun oparoko idazle apurtzailea da. Joxerraren albotik igarotzean, Koldok begi bat kliskatzen dio, mezu zehaztugabe bat bidaliz, eta barrura sartzen da bere *protégée* berriarekin.

“Tira, bakarrik egonda agian lo-kuluxka bat egin ahalko dut hitzaldian”, konformatzen da Joxerra garraztasunez. Baina aurpegi adeitsu bat gerturatzen zaio. Soietxe da, bertsolaria eta eguraldi-gizona. Gaztetako beste lagun bat.

– João!

– Joño!

Parez pare geratzen dira eta, xake partida batean egin daitekeen mugimendu bakarra balitz bezala, bata bestearen ondotik sartzen dira hitzaldi aretoan. Elkarrekin esertzen dira.

Alberto Sandonisek hitza hartu orduko, Joxerra artega dago. Ez du hemen egon nahi; Sandonis nartzisista eta hutsala iruditzen zaio. Suizidioaren ideia indarberrituta itzultzen da.

Trankimexera doakio gogoa, baina tutua etxean utzi du. Pilula aluak! Eskuen dardarizoz ahazteko, atzazalak jaten ditu, bere plazebo gogokoena.

– Aizak, Soietxe –xuxurlatzen dio bere adiskide mediatikoari.

– Bota!

– Nola esango huke? *Alaena* ala *alua*?

– Ez zakiat ba. Depende.

– *Depende de qué?*

– Hik nola esango huke?

– Ez zakiat. Horregatik galdetzen diat hiri. Gaixotasun batez ari nauk: *minbizi alaena* ala *minbizi alua*?

– Ez zakiat ba... *Minbizi madarikatua*?

“*Madarikatua*? A ze kristaukeria!”. Joxerrak ez dio erantzun ere egiten. Soietxek ez dio lagundu eta, gainera, haserrearazi egin du. Joxerra ateo sutsua da eta horrelako terminoak entzute hutsak goragalea eragiten dio.

Zigor modura, komunikazioa eteten du eta urteetako praktikarekin perfektionatu duen jardueran murgiltzen da: inor ohartu gabe kuluxka bat egiten du.

Lo gaiztoa izaten du, ordea. Kierkegaard eta Nietzsche abakando erraldoi bat jaten ari dira eta iseka egiten diote, besoekin oiloen plantak eginez. Ondoko mahaian, Marxek eta Freudek musean egiten dute Sartre eta Maoren kontra:

– Txino madarikatua..., enbido! –dio Marxek, Trankimex bat ahoan sartuz.

– Bi gehiago, bizardun alua! –Maok, bi hartuta.

– Hordago, putasemeak! –Freudek, eta kartak mahai gainera botatzearekin batera pilulak eskukadaka irensten ditu, barre-algaraka.

Jendearen marmarioak esnatzen du: aulkietatik altxatzen ari dira. Hitzaldia amaitu da, antza, eta luntxa prest dago.

Klase guztietako idazle, irakasle, ikasle, akademiko eta artistek benetako euskal mahai-ingurua osatzen dute, astebeteko baraualdia sufritu balute bezala mahai gaina garbi-garbi utziz.

“Badira bi urte ez dudala ezer argitaratzen. Nitaz ahaztuko dira laster...”, pentsatzen du, gelako aurpegi ezagunei erreparatuz.

Koldorengana jotzen du eta, oharkabea, lauzpabost lagunentzat kontatzen ari den pasadizoa etenarazten dio.

– Aizak, Koldo, barkatu. Azkenean ez genian finkatu... *Pentsalariarena* ez diat argi ikusten.

– Joxerra, ondo hago? Dardarka ari haiz-eta. Jan zerbait eta lasaitu, gizona. Tira, ba orduan bota nion...

“Eta bera segi eta segi bere txorakeriekin –taldetik aldendu den arren, nabarmena da Joxerraren nahigabea–. Denak berari adi egon behar, batez ere berekin ekarri duen trofeo txikia. Zein superfiziala den batzuetan! Batzuetan ez, beti!”.

Koldok, kontakizunaren haria berreskuratu nahian, lagunaren begi urduriak berari iltzatuta sumatzen ditu. Bere entzule taldetxoari barkamena eskatu eta Joxerrarengana hurreratzen da.

– Joxerra, berriro ere hire obsesioekin gora eta behera? Ostia, denak zaukak bere lekua eta bere momentua. Hara, filosofoa edo pentsalaria. Zer dakit nik? Zer gara gu, nor gara gu... –eskuekin masailak estutzen dizkio, begietara begiratu diezaion.– Hi irakasle bikaina haiz, oso jakintsua, fakultateko onena. Sartre haiz? Ba agian ez. Baina ni ere, *Romeo eta Julieta* euskaratu dudan arren, ez nauk Shakespeare. Eta hire andrea hilda zagok, bai, baina utziok pena emateari behingoz, gizona. Se-gi-bi-zi-tzen –eta musu ematen dio kopetan.

Joxerrak ez du erantzunik. Robot baten gisan, irteeraren bila abiatzen da. Soietxe bertsolariak edalontzi bat altxatuta agurtzen du gelako beste puntatik eta zerbait oihukatzen dio, baina mezua gelako marmarrean galtzen da eta Joxerrak alde egiten du.

Etixerako bidean, ukabilak estututa, Koldoren azken hitzetan pentsatzen du. Arrazoi du, betiko moduan. Lagun minak dira hoberen ezagutzen gaituztenak, eta hortik minak. Joxerrak hasi eta bukatu ikasi ditu aspaldi hil ziren filosofoen ideiak, baina ez du kriterio propiorik. Ezta suizidio-ohar bat idazteko ere.

Filosofoa ezabatu beharko du, dudarik ez. Baina *pentsalaria* ere bai. “Eta nire oharra, hunkigarria izan beharrean, irrigarria balitz?”. Matrailak lotsagorritzen zaizkio.

Ettxera iritsitakoan, ohean esertzen da.

Ordenagailua altzoan zabaldu eta, purrustaka, berriro irekitzen du testamentua.doc dokumentua.

“Nire fondo bibliografiko maitea... Buf, hori bai handiustea! Alexandriako liburutegiaren jabe banintz bezala...”.

“Bah!”. Nazka-keinu batez ordenagailuaren tapa itxi eta lurrean uzten du. Autoerrukiaren deiari erantzunez, malko garratz bat ateratzen zaio begitik, munduko gizonik dohakabeena denez gero.

Ez du estilorik suizidio dotore bat egiteko. Asunek esango liokeen moduan, erridikulua egingo baduzu, ez ezazu egin! Emaztea eta Koldo ados leudeke honetan, hori bai nobedadea.

Etsita dago. Etsipenaren etsipenez, etsita.

Bere mediokritateaz hausnartzen du eta, historiako filosofo eta pentsalari guztien dezepzioaren zama sorbalden gainean pairatuz, ohean etzan eta negarra parrastan irteten zaio, husteraino.

Amitzean, ahituta dago. Etzanda geratzen da, negar-zotinka.

Telefono-hotsak asaldatzen du: ahots-mezu bat iritsi zaio. *Play* sakatzen du.

Aizak, Joxerra, Soietxe nauk. Ziztu bizian alde egin duk hitzalditik! Zera, Albertok hire zenbakia eskatu zidak. Telesail baten gidoia idazten ari duk, Europako unibertsitate batean girotua. Itzela izango duk. Zinema beltza eta berdea omen duk aldi berean: hilketak eta sexua, akzioa, pertsekuzioak... dena nahastuta, ja ja ja. Arrakasta segurua!

Seriearen testuingurua prestatu nahi dik eta unibertsitateko giroa ezagutzen duen norbaiten bila ari duk. Norbait serioa eta sentibera... “intelektual bat”,

esan zidak, eta hire izena aipatu dik. Berak azalduko dik dena. Tira, banoak, sasikume hauek kanape gabe utziko naute-eta. Aio, Pelaio!

Joxerraren logelan atertu du, laino beltzak desegin dira eta, poliki-poliki, ortzadarra ateratzen da.

Letra dotoreak imajinatzen ditu sabaian, etengabe tokiz aldatuz esaldi berriak osatzen:

“Eskerrak: lehenik eta behin, Joxe Ramon Beotibar irakasleari...”

“Kolaboratzaileak: Joxe Ramon Beotibar, ...”

“Gidoi hau ezingo nuen idatzi Joxerra Beotibarren laguntza estimatua izan ez banu...”

“Zure galderara bueltatuz, telesaila proposatu zidatenean, argi neukan Joxerra nire lantaldean behar nuela...”. Ez, ez, “...argi neukan Joxerrak nire lantaldea zuzendu behar zuela...”. Hobeto.

Joxe Ramon Beotibar Andion. *INTELEKTUALA*.

Ostikada batez, ordenagailua ohe azpira bultzatzen du, mukiak garbitzen ditu eta, koltxoian eroso eserita, bi eskuekin telefonoari eusten dio.

Arnasa sakon hartu, eta *play* sakatzen du berriz, detailerik txikiena ere xurgatzeko prest.

CISNE NEGRO

Azken redobleak belarriak zulatu dizkit. Bazirudien gaztetxeko sabaia gainera eroriko zitzaigula. Momentuan ez gara zarataren bolumenaz jabetzen, baina musika amaitzen denean bai: hutsune soniko bat geratu da giroan.

Jendearen berbaroak dezibelio gutxiago ditu orain, eta Estik esaten didana entzun dezaket.

– ...zelako kaña sartzen duten, buf, flipatzen dut tipa hauekin, eta ez abeslariarekin ligatu nuelako, e! Bueno, hori ere bai, je je je.

– Ya, je je je –ez dakit zertara datorren komentario hori.

Nola ez, Esti abeslariarekin izan zuen topaketa sexuala kontatzen hasi zait, detaile guztiekin, bizi-bizi. Ez dakit bera edo anfetamina den hitz egiten ari dena.

– Benga –esaten diot, gaia aldatzeko– goazen bat sartzera, hurrengoak Brigada Suizida dira-eta.

– Bale, bale. Komuna petatuta dago, goazen kanpora.

Berez, speeda ez da nire rolloa. Marra txikiak, puntatxoak, sartzen ditut besteei konpainia egiteko; esnifatzaile soziala naiz.

Kalean, aire freskoa arnasten dugu. Ze ondo, izerdi usainik ez, kerik ez, izarrak zeruan... Minutu batez aire naturala sartzen dugu birikietan.

Orain, pozoitu ditzagun sudurzuloak.

Esti lanean hasten da. Speeda atera eta karnetarekin txondor bat egiten du karteraren gainean. Begira geratzen zaio, burua okertuta. Haren garunak milisegundo batean hainbat variable kalkulatu ditu: drogaren potentzia, aurretik geratzen zaigun parranda, orain arte zenbat marra sartu ditugun, gutako bakoitzaren tolerantzia, ... Pittin bat gehiago ipini eta konforme geratzen da.

Estik marrak egiten dituen bitartean ezin diogu speedari begirik gainetik kendu. Sorginduta gauzka, suak gure arbasoak sorgintzen zituen bezalaxe. Speedak berak ez, baina haren parafernaliak eta klandestinitateak liluratzen naute, aitortu behar dut.

– Ez moskeatu lehengoagatik, Soni. Ze klasikoa zaren...

Irribarre egiten diot. Ez nago haserre ez jeloskor, baina ez zaizkit interesatzen beste batzuekin dituen topaketa sexualak. Berriro ere gaia aldatzen dut: nire espezialitatea da.

– Bidaiarena zehaztu behar dugu...

– Bai, bai, ea ba... soka bi eraman behar ditugu, hori fijo. Eta laugarren arnes bat ere bai, badaezpada. Nik nahiago dut bihar arratsaldean irten eta han lo egin, goizean goiz hasteko. Badakizu Pedriza nola egoten den jai-zubietan. Ai, eta gasolina bota behar diogu furgoari bidetik. Eta janariaren kontua...

Abiada hartu du, biharko txangoan buru-belarri murgilduta, eta bere abeslari ziztrinaz ahaztu da. Eskerrik asko, madame Amphétamine.

Gaztetxera sartzen gara berriro.

Brigada Suizidaren kontzertua hastera doa. Gezurra dirudi: Lier, mikroa eskuan, edozein unetan lurrera eroriko den jonkia dirudi, baina itxurakeria hutsa da. Nik eskalatzen ikusi dut eta sugandila bat da, superatletikoa. Gu baino zaharragoa izanik –27 urte ditu– eskarmentu handia dauka horman.

Porro bat egiten dut.

– Paperik bai?– galdetzen diot Estiri.

Brigadakoak jotzen hasten dira. Metal geldoa, astuna, sarkorra, iluna. Eta Lierren letrak ere halakoxeak. Orain bai, orain sabaia buru gainera datorkigula dirudi. Gora begiratzen dut eta bere lekuan jarraitzen du. Tanta batzuk ikusten ditut zintzilik. Itoginak? Ez, gu guztion izerdia da: lurrundu ostean sabaian kondentsatu da eta gure katxietara erortzen ari da orain, tantaka.

Estiren kuadrillarekin gaude, kalean, zirkulu batean eserita. Edo Estiren jendearekin, edo tribuarekin. Kuadrilla terminoa zurrunegia da beraientzat. Oso talde zabala osatzen dute eta ezingo nituzke kide guztiak izenez aipatu. Baina gauza bat segurua da, ni ez naiz haietakoa. Estiren apendize bat baino ez.

Katxiak ezker-eskuin doaz, eta porroak eskuin-ezker. Speedak bere lana egin du: gau-hontz saldo bat ematen dute, begiak zabal-zabalik eta burua

alboetarantz biratzen. Nik garagardo lata bat daukat eskuan, ez dakit nondik atera dudan.

– Bueno, polita, ea Lier etortzen den, ezta? Kargatuko zuten furgoneta honezkero. Esan dit pote bat hartuko zuela gurekin.

Esti ezin da geldirik egon, eta salto batez altxatzen da. Eskuekin ipurdiko hautsa astintzen du, indarrez. Besaurre gihartsuak ditu, urtetako entrenamenduaren fruitu.

– Bai, goazen Lierren bila– nire mingaina marihuanaren efektuen kontra borrokatzen ari da.

Tribuaren begirada kokotean sumatzen dudanean Estiri ipurditik oratzen diot.

Gaztetxearen atzeko partera iristean ez dugu taldearen furgoneta ikusten, espero genuen bezala. Lier baino ez, atari batean eserita, erretzen.

– Zer, Lier? Zer egiten duzu hemen bakarrik?

Sorbaldak altxatzen ditu.

– Kontzertu guapoa e, Lier!! Belarriak oraindik burrunbaka dauzkat, ja ja– ez diot esaten bere letra autodestruktiboek neure burua urkatzeko gogoa ematen didatela. Brigada Suizida ez da nire rolloa.

– Imajinatzen duzue etxe hori eskalatzea, neskak?– aurrean dugun eraikin mardula seinalatzen digu kokotsarekin. Hamar pisuko blokea.

Lierrek irribarre triste bat dauka aurpegian, eta begiek dir-dir egiten diote. Zutitu eta badoa hormatik gora. Ni konturatu orduko, oinak lurretik bi metrora dauzka.

Lar erreta nago erreakzionatzeko.

– Lier, jaitsi!– Esti nolabait etxearen paretaraino teletransportatu da.

Gelditzen da eta goitik begiratzen digu. Irribarre triste hori dauka oraindik, baina begiak ilunago. Lierren Showa hastera doa.

– Aizu, egon trankil, ez dago arriskurik. Gainera, erortzen banaiz, zer?

Estik etortzeko agintzen dit hitzik gabe. Ondo ezagutzen dut begirada hori: tentsioz betea baina aldi berean lasaia. Zerbait egingo duela nabari zaio.

– Eutsiozu, polita– esaten dit.

“Zeri eutsi?”, pentsatzen dut nire marihuana-lainoan.

Esti tigre bihurtu da. Bi salto ematen ditu fatxadan gora, Lierri orkatilatik oratzen dio, eta behera tiratzen du.

Orain badakit zeri eutsi behar nion. Lier hormatik erori da, baina zorionez lurrean zerbait biguna aurkitu du oinak pausatzeko: nire gorputza.

Estik salto garbi bat egiten du lurreraino.

Elkarri begiratzen diogu hirurok, arnasestuka, norbait zaurituta dagoen igarri nahian.

Lata eskuan daukat oraindik, baina barruan zegoen garagardoa nahiko modu demokratikoan zabaldu da nire arropetatik. Osterantzean, ondo gaude hirurok.

Lier da hitz egiten lehena:

– Baina... zoratuta zaude? Zertarako egin duzu hori?

– Beitu, Lier. Ez dakit azidoa jan duzun, medikazioa hartu ez duzun edo ilargi betea dagoen, baina ez egin txorakeriarik nire aurrean. Igotzen hasten zarenean gero jaistea ezinezkoa da.

– Bueno, jolasa zen, Esti. Eta igotzeko kapaz banaiz, jaisteko ere bai.

– Bale, zuk nahi duzuna, baina zu amiltzen ikustea ez da nire espektakulu klasea. Ez zaude ondo. Ni zurekin ez noa Pedrizara.

– Bale, ba ez goaz. Total, mierda bat da. Dena da mierda bat.

– Benetan, Lier, *death metal* talde horretan sartu zarenetik jasanezina zara...

– *Doom metal*, barkatu.

– Zoaz popatik hartzera. Ni banoa hauengana. Bazatoz, polita?

Segundo batez begira gelditzen natzaio, pelikula bat ikusten banengo legez. “Nirekin ari da”, konturatzen naiz azkenean.

Eta altxatu eta haren atzetik joaten naiz txintxo-txintxo. “Nola ez naiz joango ba zurekin?”, pentsatzen dut malla estuen azpitik nabarmentzen zaizkion izter irmoak miretsiz.

Lier han uzten dugu, pentsakor eta damututa.

Hurrengo goizean esnatzen naizenean, minutu bat behar dut non nagoen jakiteko.

Eguneko lehenengo aizpurutxo egiten dut, nire maitalearen abaroan erretzeko. Katua banintz, urruma egingo nuke.

Bat-batean bart gertatutakoaz oroitzen naiz. Begiak zabal-zabalik, kolpetik esertzen naiz.

– Esti! Esti! Esnatu!

Zirkinik ere ez.

– Esti! Esti!

– Ze ostia?!?!

Ikarratu dut. Segundo batzuk ematen dizkiot.

– Esti, eee, polita... Bart zertan geratu ginen Lierrekin?– Ierdo hauek zubia zapuztuko didate.

– A, hori... Ni ez noa tipo horrekin, kokoteraino nauka. Umore aldaketa asko ditu eta arriskutsua da. Begira zer egin zuen atzo. Zure bizia bere eskuetan jarriko zenuke?

Tipo horrekin. Kaka zaharra. La Pedrizan egin gura dugun bidea –Cisne Negro– igotzeko hiruko talde bat osatu behar dugu gutxienez. Ni kordadan baldin banoa, behintzat. Hormak lau tarte luze dauzka eta ni juxtu egi noa teknikan eta erresistentzian.

– Baina, Esti, emaiizu aukera bat– Cisne Negro menderatzearen ametsa urruntzen ikusten dut.

– Ez, ez. Nahi baduzu zu eta biok egun pasa joango gara nonbaitera, zerbait erraza aukeratuko dugu– nire tristura-aurpegiak biguntzen du– Etorri hona...

Eta, goibel nagoen arren, banator. Nolako atzamar trebeak dituen...

Berriro lo geratu gara eta telefonoak jotzen du. Estik ez du erantzun gura: ondotxo daki nor den.

Neuk hartzen dut azkenean.

– Lier, Soni naiz.

– A... Kaixo, Soni. Haserre dago, ezta?

– Bueno, pixka bat. Pasako zaio– Estik erdiko atzamarra luzatzen du, begiak ireki gabe– Eta zu? hobeto? Pedrizarako prest?– esaten dut itxaropenez.

– Ez dakit, agian ez duzue nirekin joan nahi, ezta? Sentitzen dut, baina badakizu, medikazioaren desorekak... batzuetan goian nago, bestetan behean...

– Eta gurekin goi-goian egongo zara, motel! Goian, eta gero baso magikoan! Eta gauean Getafekoen okupara, bai? Benga, animatu zaitetz, Estibaliz sarjentuari haserre pasatu zaio.

Estik ezetz esaten du atzamar bat ezker-eskuin mugituz, baina barrea eskapatzen zaio.

– Jo, neskak, benetan, onenak zarete. Hitza ematen dizuet ondo egongo naizela. Hiritik irten behar dut.

– Bikainnnn, titi. Zubi guapoa izango da. Benga, erosketak gure kontu, bale? Estik dio zeure soka ere ekartzeko..., eta enpotradoreak ere bai. Seietan pasako gara zure bila, bale? Gero arteeee, muxuuuuu... –eta telefonoa eskegitzen dut, iluntasunak Lier mendean hartu baino lehen.

Oso harro nago neure buruaz. Maniako-depresibo bat naturan plan bat egiten konbentzitu dut eta nire nobia egoskorra iritziz aldarazi dut.

Krisia konponduta, beraz. Porro bat pizten dut, ondo merezita piztu ere, eta nire maitearen besoetan desegiten naiz...

Eguerdia bidaia prestatzen ematen dugu. Tira, Estik egiten du. Ezagutzen dudan pertsonarik efizienteena da.

Ni erosketetara bidaltzen nau, zerrenda zehatz batekin. Estiren aurpegiaren seriotasuna neurtzen saiatzen naiz, paperean agertzen ez diren zenbat litxarrerria erosi ditzakedan kalkulatzeko.

Dendan patxadaz ibiltzen naiz, neure pentsamenduetan murgilduta, ile-puntak ahoan sartuz. Oso *zen* sentitzen naiz.

Etixeratzean, ahapetik esaten diot “uste dut dena erosi dudala”, hartu ditudan txerrikerien kontura datorkidan errietagatik urduri.

“Zu, erlaxatu”– erantzuten dit. Nik kasu egiten diot eta beste kanuto bat liatzen dut, gauean Pedrizako parkineko zelaian etzanda ikusiko ditugun izarrekin amets eginez.

– Tipo hau ez da agertzen. Ez da agertuko. Esan nizun: asko maite dut, baina ez da fidatzekoa.

– Esti, joe, hamar minutu bakarrik itxaron dugu. Ez zaitez urduritu, e. Oporretan gaude.

– Bai, baina denontzat dira oporrak. Nik literatur kritikako lana egin behar nuen eta plan honengatik atzeratu dut.

– Bueno, polita, lasai. Albarez, ezta? Badakizu, titi bat erakutsi eta nota ona jarriko dizu, ja ja.

– Ez dit grazia putarik egiten. Ez dakit nola banalizatzen dituzuen horrelako jarrerak, Sonia. Eraso matxistak normalizatzen dituzue horrela!

Buf... Pluralean hitz egin dit, *Sonia* deitu dit eta teorizatzen hasi da. Seinale txarra. Hobe dut isilik egon; nekatuko da, edo bere jardunean galdu eta isildu beharko da, bietatik bat.

Porro bat egiten hasten naiz.

– Paperik bai?– ea restop batean erosten dudan.

– Ez aldatu gaia. Feminismo burgesak ez du... ez du... joder, zure erruz ez dakit zer nengoen esaten! Galdu naiz!

Lier une justuan heltzen da. Nire neskalagun marimutil agresiboaren errieta infantilizatzailearen erdian, printze heterosexual bat etorri da ni salbatzera. Inon ironiarik baldin badago...

– Neskak, banator!!

Korrika gerturatzen da, pozarren, motxila bizkarrean, soka lepoan eta hainbat traste besoetatik eskegita. Ze ederra zaren zoriontsua zarenean, Lier...

Furgonetatik jaitsi eta besarkada bat ematen diot.

– Madril konkistatzeko prest??

– Ejke, ej dakit katu-oinak ekarri ditudan.

Barrez lehertzen gara. Bere gauzak sartzen ditugun bitartean, Lierrek enegarren aldiz kontatzen du Atxarten ezagutu genuen bikote madrildarraren istorioa. Lekutan aparkatu ondoren, 40 minutuko hurbilketa nekagarria egin behar izan zuten oinez eta, hormara heltzean, batak horixe bota zion besteari, “ejke... ej dakit katu-oinak ekarri ditudan”. A ze barreak egin genituen haien kontura!

Traste guztiak gordeta, Estiren furgonetak ziztu bizian ateratzen gaitu Lierren auzoko gristasunetik.

Gure espedizioko melomano ofiziala Lier da, noski, baina Estiri hitz eman behar izan dio musika alaia baino ez zuela ekarriko.

– Bale, titi, talde tronpetero-ratoneroak baino ez ditut ipiniko, ulertuta.

– Eta dantza egiteko musika!

Esti umoretsu doa bolantearen atzean. Bidaia atsegina da.

Porroek gosea ematen didate, a ze sorpresa. Estik txukun-txukun sailkatu eta bildutako janaria hankaz gora jarrita, txokolatezko palmera bat ateratzen dut poltsaren barrenetik. Egin dudak triskantza ikusten duenean, gozo jarriko da. Baina, ordura arte, ze ona dagoen mierda hau...

Kashbaden kantu bat hasten da. Nik instinctiboki Lierri begiratzen diot, baina ondo dago, itxuraz. Zergatik ekarri ote du Kashbad? Talde hori entzutea traumatikoa gertatu zaio azken boladan.

Duela urte eta erdi, Amsterdamen zuzenean ikusi genituen hirurok Lierren orduko neskalagunarekin: Auritz, guretzat *Forrest*, ordu erdi libre zeukanean korrika egitera ateratzen zelako.

Garai hartan Auritz erizaintza ikasten ari zen, eta urtebete eman zuen Amsterdamen, Erasmus programan; Kashbaden kontzertuaren aitzakiaz, bisitan joan gintzaizkion hirurok. Bidaia gogoangarria izan zen, baina

kontzertuaren biharamunean Auritzek Lier utzi zuen. Haren arima torturatuarentzat kolpe latza izan zen, eta luzaro ez zuen bururik altxatu.

Atzeko jarlekuan dago, pentsakor. Ez dirudi alai, baina triste ere ez. Gainditu ote du? Hala dela sinetsi nahi nuke. Eta pentsamendu horrekin kanuto bat egiten dut.

– Hara, Hartz Handia– puntu ñimiño bat seinalatzen dut La Pedrizako zeru infinituan.

Nire bidaideak adi-adi daude, nire albo banatan etzanda. Zerua garbi dago eta konstelazioak banan-banan erakusten dizkiet.

Porroa pasatzen diot Lierri. Normalean nire porroa neurea da, baina izarrei begiratzea erritu moduko bat da eta, gure arbasoen usadioan, droga komunitatearen ihesbide, pasabide, gozabide, komunikabide bihurtzen dut.

– Izar horiek guztiak dagoeneko ez dira existitzen, ezta?– galdetzen du Lierrek–. Beharbada une honetan ez dago ezer, beharbada gurea da existitzen den azken planeta. Dena hondatuta egon liteke hor kanpoan.

– Gora bihotzak– dio Estik sarkasmoz.

– Bueno, arrazoi du– Lierri laguntzen diot– Imajinatzen duzue gu izatea azken biztanleak??

– Gu eta madrildarrak– dio Estik, eta barre egiten dugu biok.

– Berdin da desagertzen azkenak edo lehenak garen– erantzuten du Lierrek– Hil ostean ez dago ezer, eta inori ez zaio inportako bizi ala hiltzen garen. Hiltzean bizitzaren kondenatik libratzen gara, hori bai.

Ukondoak lurraren kontra jarrita, soina altxatzen dut.

– Ei, Lier. Ondo zaude?

Lier isilik dago, izarrei begira, agian bere izarrari begira, denok baitaukagu geure izarra, Unibertsoaren beste puntatik zaintzen gaituena. Nik hori sinesten dut, behintzat.

– Bai, lasai, ez naiz depresioan amilduko, lasssaaaaaiiii– irribarre egiten ahalegintzen da– Tira, banoa lotara. Bihar goiz altxatu behar gara –begira geratzen zait. –Soni, zure irribarrea, zure positibotasuna, zure maitasuna... itzelezko bakea transmititzen didazu. Nire txamana izan nahi duzu?

– Noski, Troskiiii. Gabooooon, politaaaa– esaten diot, pozaren pozaz kabitu ezinik, eta musu bat bidaltzen diot furgonetarantz urruntzen den bitartean.

Mutil honek poeta-arima dauka. Edertasuna aurkitzen du nonahi, baina, hartaz gozatu beharrean, min egiten dio.

– Ez dakit zergatik ematen diozun koipea. Zuk bere tristura eta sakontasuna mirestea baino ez du nahi. Eta lortzen du.

Ez nuen Estiren komentario krudela espero eta benetan mindu nau. Zer naiz ni? Boxeo-zaku bat? Gerra ezkutu honetan bi bandoen artean egotea nekagarria da.

Lier Estiren laguna da nirea baino lehenagotik, eta beti edukiko dute lotura sakonagoa. Bai onerako, bai txarrerako. Baina nik kariñoa hartu diot eta beste binkulo mota bat sortu dugu, edo hori pentsatu nahi dut.

– Hala, banoa furgora, logura ematen didazu– Esti bakarrik uzten dut, bere pentsamenduetan murgildurik eta, espero dut, erru-sentimenduarekin.

Biharamunean dena da ezberdina. Egunsentian itzartu eta organismo bakarra bagina bezala jartzen gara martxan. Bakoitzak bere eginkizuna betetzen du, inork eskatu gabe, inork agindu gabe. Nik gosaria egiten dut eta gaurko janaria eta kantinplorak prestatzen ditut, Lierrek materiala aukeratzen eta antolatzen du, eta Estik La Pedrizako plana aztertzen du eta furgoneta txukuntzen du. Atsegin dut gure komuna txiki hau.

Cisne Negro bidea muino baten aurpegi batetik igotzen da, lau tartetan banatuta. Muinoaren goialdean baso zoragarri bat omen dago, baso magikoa. Kondairak dio bat baino gehiago erotu eta barruan galdu dela betiko, hain da ederra.

la ordubetez ibili ostean, hormaren magalera iristen gara. Gure hormara. A ze harkaitz puska!

Gehiagotan etorri gara La Pedrizara, baina inoiz ez diogu Cisne Negro mitikoari ekin. Hurbilago dauden sektoreetan aritu izan gara, jende gehiena bezala. Hainbeste biderrez une honetaz hitz egin ostean, eguna heldu da. Pareta gurea da. Azkenean, hasi eta bukatuko dugu.

– Bueno– dio Estik, horma mirestekoa ia astirik eman gabe–. Neuk irekiko dut lehenengo tarte. Eta bigarrena ere bai. Zuk hirugarrena, bai, polita? Eta laugarrena Lierrek.

Nirekin aritzean, ahotsa pittin bat leundu du, nik bakarrik hauteman dudan modu batean, umeei, zaharrei eta neskato txoriburuei hitz egiten zaienean egin behar den gisan. Ai, Esti maitea: hainbeste teorizatu eta etsaia kanpoan bilatu beharrean barrura begiratuko bazenu...

Denok gaude ados planarekin. Esti abiatzea perfektua da, bere erritmoa sartuko digulako. Eta azken tarte zailena omen da, hasiera aldean konkorr bat dauka eta sabaitik eskegita eskalatu behar da metro bat edo bi; Lier fresko egongo da eta eskalatzaile teknikoena da.

– Bengaaaa, ekipoooo!!! Goazeeeeeen!!– animatzen ditut, salto txikiak eginez.

Estik ez dit ia begirutzen, kontzentratuegi dago. Eta pozten naiz: orduak emango ditugu horman eta norbaitek gorde behar du kontzentrazioa.

Konturatu orduko, Esti paretan gora doa, mugimendu doiak eginez, serio demonio. Nik arnesa janzteko astirik ere ez dut eduki. Lier aseguratzen ari denez, aizpurutxo bat egiteko aprobetxatzen dut.

– Paperik bai?

– Bai, atzeko poltsikoan, hartu zuk.

– Dena ondo, Lier?

– Bai, bueno... Goizak gogortxo egiten zaizkit, badakizu.

Eta gauak ere bai. Badakit.

– Bueno, txo, utzi buru-janak. Hemen gaude naturaren erdian, gu bakarrik, hiru arima bat eginda, lotura sakon-sakona ehuntzen... Ez al duzu nire energia nabaritzen?– eta eskuak astintzen ditut haren inguruan.

– Burutik jota zaude– esaten dit irribarrez.

Behintzat goiza pixka bat alaitu diot.

– Aizu, Soni. Gaur bero handia egingo du. Agian hobe da bigarren soka hemen uztea, aldean eraman beharrean. Ezkutatu sasi horien artean eta gero hartuko dugu, bai?

– Mmmm..., bale, ondo. Cisne-ren aurak esaten dit ez dugula beharko.

Estik lehenengo tartea kateatzen duenean, neuk ekiten diot.

Horman gora noa, neu bakarrik, hurrengo pausoa emateko presarik gabe, heldulekuak ondo aukeratuz, bakean, ... zoriontsua naiz. Badakit ez naizela eskalatzaile aparta, haiek bezala, baina gustatzen zait imajinatzea nire mugimenduak ezin zehatzagoak direla, indar juxtua erabiltzen dudala, energia ekonomizatuz eta giharrak behar denean bakarrik tenkatuz.

Eta gustatzen zait nire bi lagunak niri adi egotea, bata goitik eta bestea behetik, baina ez exhibizionista naizelako, baizik eta eskalatzean lotura ezin intimoagoa sortzen delako pareta berean zintzilik dagoenarekin.

Probatu ez duenak ez daki zer den hau.

Hain nago kontzentratuta eta erlaxatuta ezen, hirugarren tartea iristen denean, hau da, bidea nik ireki behar dudanean, inoiz baino lasaiago hasten bainaiz.

Bide bateko lehenengoa naizenean beti izaten dut beldur pixka bat, eroriz gero hegaldia luzeagoa izaten delako bidea irekita dagoenean baino, baina gaur ez, gaur denak enkajutzen du. Horma eta ni bat gara, eta atzamarrekin eta behatz puntekin laztantzen uzten dit, etxekotu berri duten basazaldi baten moduan.

Azken tartearen hasieran biltzen gara, harrizko plataforma moduko batean. Estu, baina hirurak kabitzen gara, zutik. Pixka bat jateko eta hidratatzeko aprobeztatzen dugu.

Ezin pozago nago, eta biak besarkatzen ditut. Estiri grazia egiten dio.

– Tira, azken tarte. Azken bidaia– esaten du Lierrek solemnitaterik.

Barre egiten diogu eta berak kopetilan begiratzen digu, lehenengo bati eta gero besteari.

– Maite zaituztet, neskak– eta badoa gora.

Elkarri begiratzen diogu Estik eta biok, ateraldia umorez edo kezka hartu behar ote dugun erabaki ezinik. Ez dugu ezer esaten, ez dugu momentua zapuztu gura.

Espektakulu bat da Lier eskalatzen ikustea. Zehatza, arina, indartsua, neurtua, ahaltsua... Itxurakeriarik gabe. Basakatu lirain bat da. Gehiago entrenatuko balu...

Tarte honen abiapuntuan dago konkor famatua. Horma kanporantz irteten da, haurdun balego bezala, eta sabelaren hasieran eskuetatik zintzilik eskalatu behar da. Irtengunea gainditzea ez da mariaren gauerdiko eztula, baina berak problemarik gabe egiten du.

– Hor doa Alaitasun kapitaina...

– Esti, zelakoa zaren... Utziozu arnasa hartzen.

Eszitazioak titi bat oratzera bultzatzen nau eta sekulako musua ematen diot, mingaina eztarriraino sartuta.

– Ai, neska, orain ez, Lier aseguratzen ari naiz... Baina, furgonetara itzultzen garenean, ikusiko duzu. Lehor-lehor utziko zaitut.

Irribarre tonto bat irteten zait. Tira, aizpuru bat egiteko unea.

– Paperik bai?

– Orain ez, Soni. Uste dut heldu dela. Lieeeeeeerrrr!!!! Heldu zaraaaaaaaaaa??

Erantzunik ez.

Segundo batzuetara Lierren ahotso iristen zaigu. Ez diogu ulertzen, baina hurrengo igotzeko seinaleztat hartzen dugu.

Estik keinu bat egiten dit, neu igotzeko. Ez nau azkena utzi nahi. Antzinako dama baten moduan sentitzen naiz.

Kanutoa tontorrerako utzi behar.

Estiren soka-muturrean lotzen naiz. Arestian adostu dugunez, Lierrek aseguraturako gaitu goitik, irtenguneak ez dezan soka urratu. Bueno, orain arreta osoa, tarterik teknikoena dator eta besaurreak kargatuxe ditut.

Abiatu aurretik Estiri begiratzen diot. Kontzentratuta dago, material guztia batzen, burdinak zein aldakatatik eskegi kalkulatzeko, tresneriaren pisua orekatzen... Nire ordenadore txikia.

Bere gauzetan uzten dut eta abiatzen naiz.

Bigarren asegurutik noa eta uste baino errazago izaten ari da. Konkorra garbi eta dotore gainditzen dut. Harro nago neure buruaz.

Eguzkiak begietan jotzen dit gora begiratzen dudanean: hobe. Horrela horman kontzentraturiko naiz. Lier ez dut ikusten, baina gora heldu eta besarkatzeko irrikan nago, gure espirituak...

– Soniiiiiii!!!– oihukatzen du Estik behetik. Larritasuna hautematen diot ahotsean, asaldatu nau–. Soka tentetu gabe dago. Ez segi igotzen. Esan Lierri tenkatzeko!!!!

Ostia! Egia da. Soka, gu bion artean lerro zuzen bat irudikatu beharrean, irtengunea baino beherago iristen da eta gero nire gerriraino dator. Ez naiz konturatu, baina Lier ez da soka batzen ari ni igo ahala. Orain jausten banaiz hegaldia alimalekoa izango da, hainbat metro eroriko naiz.

– Lieeeerrrrr!!!! Batu sokaaaaaaa!!!

Erantzunik ez.

– Lieeeerrrrr!!!!

Ahotsa urratzen zait eta ez dut erantzunik jasotzen. Larritzen naiz. Ezin naiz sokatik eskegi besaurreak deskantsatzeko, ez baitago tente. Besoak berez kargatuta neuzkan baina oraingo nerbioekin are gehiago.

Behera begiratzen dudan arren, hemendik ezin dezaket Esti ikusi; irtenguneak ostentzen du.

– Estiiiiiii!!! Lierrek ez du erantzuten!– beldur pitin bat dario nire ahotsari, eta Esti konturatzen da.

– Txiki, ez larritu. Arnastu astiro. Eragin sokari, ea erantzuten duen.

Sokari eragiten diot, uhinak egiteko. Ez dut sokaren amaiera ikusten, baina esango nuke uhinak Lierrengana iritsi baino lehen hiltzen direla.

Zertan dabil mutil hau? Pentsamendu ilun bat etortzen zait. Eta salto egin badu? Panikoa nitaz jabetzen da. Sokatik tiraka egiten dut, indarrez, larri. Bigarren aldiz tiratzera noanean, soka erortzen hasten da. EZ! Lierren soka-muturra nire ondotik jausten ikusten dut. Baina non dago Lier?

– Lieeeerrrr!!!!– oihukatzen dut gora begira, nire indar guztiekin; erantzunik ez
– Estiiiiiii!!!– izututa nago.

Haitz erraldoi batean nago, zortzi atzamarretatik eta bi behatzetatik zintzilik, lurretik 60 bat metrora, inolako segurtasun-neurririk gabe. Hanka motorrarena egiten ari zait: tentsioan egotearen ondorioz dardarka daukat, eta ezin dezaket kontrolatu.

Estik, bere plataformatik, soka pasatzen ikusi du, ziur nago, urduri samar erantzuten didalako.

– Soniiii!!! Ez dago hortik euskarriren bat? Deskantsatzeko moduko zerbait?

Ingurura begiratzen dut. Pareta zapal-zapala da hemen.

– Eeezzzz!!– negarrez nago.

Itxaron. Arrokazko ezer ez, baina pixka bat beherago, bidearen ertzean, zuhaixka bat dago. Lehenago ikusi dut.

Jaistea igotzea baino zailagoa da, askoz ere zailagoa, baina ez daukat beste aukerarik. Bakarrik nago, eta besoak nekatuta dauzkat. Dardara batean jaisten naiz, beherantz eta ezkerrerantz, malkoek begiak lausotzen dizkidatela. Eskuekin sikatzen ditut baina atzamarretako magnesio-hautsak azkura ematen dit. Ezin ditut begiak apenas zabaldu.

Iritsi naiz zuhaixkara. Gogoratzen nuen baino engelagoa da eta erotik erdi irtenda dago. Ez dit batere segurtasunik ematen. Nola edo hala ipurdia enborrean bermatzen dut, eta hankak eta besoak ahalik eta solteen uzten ditut, indarra berreskuratu dezaten. Lehertuta nago.

– Estiiii!!! Zuhaitz baten gainean nago, ondo nago!! Zer gertatzen da? Non dago Lier??

– Polita, ez dakit. Baina pentsatzen hasi behar dugu agian erori dela.

– Baina nola eroriko da? Tontorra zapal-zapala omen da!

– Bueno, erori ez. Agian... Ea, saiatu soka nire aldera bultzatzen.

Ni oraindik neure soka-muturrera lotuta nagoenez, Estik iradokitzen du berak beste punta eskuratzea eta ni aseguratzea. Ideia ona da, baina nagoen lekutik ezin izango diot soka helarazi. Hamar bat metro ezkerrerago nago, bidearen beste ertzean, eta gainera konkorr handia dago gure artean.

Ahalegintzen naiz, baina alferrik. Saiakera honek besoak zeharo nekatzen dizkit.

– Ni nagoen lekuraino jaitsi zaitezke, Soni?

– Lotu barik?? Eta irtengune horrekin bidean? Ezta pentsatu ere! Gainera erdi itsu nago eta besoak ahituta dauzkat... Ez dut hil nahi zu berriro ikusi gabe!!! –muki, malko, magnesio, hosto eta izerdi pasta batek begiak estaltzen dizkit. Dohakabe sentitzen naiz eta negarrez hasten naiz berriro.

– Ei, hemen ez da inor hilko. Zu eta ni ez, behintzat. Ez dut ulertzen zergatik ez duzuen bigarren soka igo... Rapel bat prestatu dezakezu arbolan eta nigana kulunkatu?

– Ez, ez da batere sendoa, Esti– enbor nano honi soka batekin tiraka egitea imajinatze hutsak hotzikarak ematen dizkit.

– Bueno... Ea norbait igotzen den eta jaisten laguntzen digun...

Baina ez da inor etorriko. Bide honetatik jende gutxi igotzen da, eta datozen gehienek lehenengo tartea baino ez dute egiten. Gainera, oso goiz da. Beharbada ordu pare bat barru...

– Ea, lasaitu gaitezen. Lierrek aseguraturako zintuela adostu dugu lehen, ezta? Lierrek ez zuen ba pentsaturiko nik behetik aseguraturako zintudala? Agian hori ulertu du eta horregatik askatu du soka, niri emateko?

Lasaitzen naiz. Arrazoi du. Agian Lier askatu da eta paseatzera joan da, basoa ikustera, gu igotzen garen bitartean. Horregatik ez gaitu entzun. Edo agian salto egin du? Baina orduan erortzen ikusiko genuke, ezta? Ala beste amildegiren bat dago muinoaren beste aldean?

Salto egin gura zuela aditzera eman digu eta ez diogu galarazi?

Batera edo bestera, ordu batzuk eman beharko ditugu hemen, Esti bere plataforman zutik eta ni arbolatxo honetan eserita, Pachamamari, Budari, konstelazioei eta Bob Marleyri zuhaitza eror ez dadin otoitz egiten. Baina norbait agertuko da, seguru.

– Esti–, esaten diot lasaiago, besaurreak masajeatzen ditudan bitartean. Zuhaixkaren kontra daukadan ipurdi-masaila altxatu eta bestea ipini nahi dut, baina mugitzen naizenean zuhaixka gehiago makurtzen da. Bere onetik irtengo ote da? Ez banaiz asko mugitzen, ez.

Esti, maite zaitut. Esti, zure ondoan eman ditudan momentuak zoragarriak izan dira. Esti, zurekin zoriontsua naiz. Esti, desio zaitut. Hori dena esan nahi nioke une honetan, baina izutuegi nago.

– Estiiii...

– Esaaaaan!!!

– Estiii...

– Zeeeeeeeeerrrrr?!?!

– ... paperik bai?

BIZITZAREN MARATOIA

Argia.

Seinalea da.

Besteak nabaritzen ditut inguruan. Zenbat gara? Ehunka? Milaka? Bilioika? Ez dakit.

Baina noan nirera. Argitara.

Nire izatearen azken nanometroa ere lan honetara jartzen dut. Mugitu nadin.

Arrastatuz, kulunkatuz, bihurrituz, okertuz, uzkurtuz eta gero luzatuz, banao.

Gorantz mugitzen naiz, kristalezko azalera garden batean, 90 gradutan, grabitatearen indarrari kontra eginez. Zuzenean kontra eginez, ez pixka bat edo zeharka, ez. Indar erabat antagonikoak gara.

Besteak ere badoaz. Biren gainetik igaro naiz. Zeharretara jarrita daude, ez dakit zer norabidetara begira, niretzat norabide bakarra baitago, argiarena.

Ni baino hiru aldiz handiagoa den bat gainetik pasatzen zait, astiro. Baina nik ez dut presarik. Pasatu denean, bideari ekiten diot berriro. Poliki, baina gelditu gabe. Baldar, baina tinko.

Argia lainotu da. Zerbait dago haren eta nire artean. Tanta bat erortzen zait gainera. Azkura ematen du, mina. Jasanezina da. Bihurritzen hasten naiz eta azaleratik erortzen naiz, behe-beheraino, hondoraino. Bizirik larrutu banindute bezala sentitzen naiz.

Agonia infinitu baten ostean (izan liteke milisegundo bat edo mila milioi mende), ez dut ezer sentitzen. Argiaz ahazten naiz, eta nagoen lekuan geratzea otutzen zait, mugitu beharrik gabe, bertan goxo, inora joateko premiarik gabe. Eta agian zoriontsu izan, nork daki.

Baina baretasun horrek laster abandonatzen nau. Dena ahazten dut, argitara heltzeko premia, beharra, guraria izan ezik.

Berriro ekiten diot bideari, hasieratik. Hiruren gainetik igarotzen naiz. Batzuk iritsiko ziren honezkero. Beste batzuk ez dira sekula iritsiko. Ni bai, ordea. Ni iritsiko naiz, ehuneko ehunean dakit. Hori da nire helburu bakarra. Hori da nire existentziaren xede bakarra.

Eta banoa, poliki baina tai gabe, aurrera. Akatsik egiteko beldurrik gabe, nire arrakasta inebitablea denez gero. Beste eklipse bat argian. Ez naiz gelditzen. Eklipsea amaitu da, baina ez dut erasorik pairatu. Beharbada beste batzuek bai? Jarraitzen dut.

Fisikoki posible den aldaparik pikoenean gora, dagoen eta azalerarik leunenari itsatsita, ni beti argiaren norabidean, amore eman gabe.

Azaleraren ertzera iritsi naiz eta, kanpoaldetik, beherantz abiatzen naiz. Orain grabitatea alde daukadan arren, lasaitasunez, emeki noa. Helmuga hurbil sumatzen dut. Baina, egiaz, ez dakit zer den hurbil eta zer urrun. Niretzat momentu bat hurrengo momentuaren aurretik edo ondotik datorrena da. Zer da denboraldi luze bat? Ez dakit. Zer da denboraldi labur bat? Ez dakit. Segundo bat? Baliteke. Ehun mila minutu? Baliteke.

Atzetik bultza egiten didate eta, presioaren eraginez, nire atzealdea azaleratik bereizten da. Grabitateak bere lana egiten du eta nire gorputza, atzetik aurrera, askatzen hasten da. Azkenean, erortzen naiz.

Baina ez dut minik hartu, nire bulkada primitiboa mina baino indartsuagoa baita. Eta ez dut ezer hautsi, masa bigun eta hezurgabea bainaiz.

Orain beste azalera batean nago. Ez gora, ez behera, 0 gradutan mugitzen naiz, edo 180 graduan, nola begiratzen didazun.

Argia biziagoa da, eta beroa ere bai. Ia-ia iritsi naiz, baina ez naiz urduritzen, ez baitut adimenik.

Hildakoak sumatzen ditut inguruan. Erdibitutako gorpu likin baten erditik igarotzen naiz.

Arrastatuz, kulunkatuz, bihurrituz, okertuz, uzkurtuz eta gero luzatuz, banoa.

Beroa gero eta intentsuagoa da. Bat-batean, ezin dut aurrera egin. Azalera honi itsatsita nago.

Argiaren berotasuna nire gorputza urtzen hasi da. Azalera honekin bat egiten ari naiz. Baina aurrera segitzen ahalegintzen naiz. Ez naiz konturatzen zenbat eta gehiago aurreratu hainbat eta azkarrago hilko naizela.

Azken unera arte, beroak eragindako erredurez eta babez estalita, kiskalita, nire gorputz osoa, azken mintzeraino, aurrera egitera tematuta dago, ehuneko ehunean. Argiaren iturrirantz, beti.

Argia lausotzen ari da, indarra galtzen. Ez dut ia hautematen. Ez dut batere hautematen.

Hil naiz.

Julieta Albarez, praktiketako ikaslea (500069 zk.)

Biokimikako Laborategia

UV eraikina

4696 testa (*B. lux.*)

Baliabideak: *Bacillus luxquaesitoris* baziloa, 40.000 bat ale, bi probetatan (A eta B) masa berdinetan banatuak.

Probetak dauden mahaian Bunsen erregailu bat piztu dugu, probeta bakoitzetik 10 zentimetrora.

Helburua: Mikrobio honen espezimenek –beren artean distantzia erregularrak gordetzeko eta argitarantz joateko duten joera naturala aprobeztatzuz– Bunsen erregailuaren sugarraren energia metatu eta garraiatzea.

Garapena: Ale guztiak erregailurantz joan dira. Baina, temperatura hilgarria iritsi baino lehen distantzia eroso batean gelditu eta taldekatu beharrean, modu anarkikoan aurrera jarraitu eta hipertermiaz hil dira. Den-denak, salbuespenik gabe.

A probetan Trankimex© antsiolitikoa tantaka isuri dugu (0,3 ml), eta B probetan ez. Antsiolitikoarekin kontaktuan egon diren baziloek nolabait erreakzionatu dute, abiadura motelduz, baina efektuak ez du luze iraun.

Hortik aurrera, ez dugu hauteman alde esanguratsurik A taldearen eta B taldearen artean: ez batzuek ez besteek ez dute bizirik irauteko instinturik erakutsi.

Eraitza: Heriotza tasa, ehuneko ehun (%100).

Ondorioak: *Bacillus luxquaesitoris* espezieak argia bilatzeko daukan joera EZIN DAITEKE BALIATU energia-metatzaille izan dadin. Ez da akumulatzaile egokia.

Ohar pertsonala: Ikertzaile honen ustez, espezie honek oztopoen aurrean erresistentzia harrigarria erakusten du, baina haren guraria kontrolaezina da. Indibiduoek, desiratzen duten hori hautematean, ohiko formazio erregularra eta ordena hausten dituzte, burua galtzen dute, eta joera autosuntsigarri eta suizida absolutua erakusten dute. Antsiolitikoek ez dute laguntzen.

ZITALKERIA

Supermerkatuan sartzen da. Inoiz ez da leku handietara joaten, jendea gorroto baitu.

Orga bat hartu eta pasilloetatik ibiltzen da, poliki, presarik gabe. Erdi-erditik doa. Noizean behin produkturen batek jakin-mina pizten dio eta hartu egiten du. Aurrera jarraitzen du, etiketa irakurriz, eta beste apal batean uzten du.

Hozkailuetara iritsi da. Jogurt mota asko ikusten ditu. Hiru eskuratzen ditu, baina haietako bakoitza lauко multzo batetik kenduta. Agure baten ahotsak asaldutzen du:

- Aizu, andrea, jogurtak launaka hartu behar dira, ezin da sortatik bat atera.
- Deitu jogurten poliziari– eta aurrera jarraitzen du, gizonari bizkarra emanez.

Izoztuen sektorean, pizzen parean gelditzen da. Pizzak banan-banan ateratzen ditu, zaporarik xelebreena zeinek duen igarri nahian. Marmarka irakurtzen du bakoitzaren etiketa: zein baino zein konbinazio okerragoa iruditzen zaio. Osagai bereziki iraingarri bat aurkitzen duen bakoitzean ahots erridikuluz irakurtzen du.

Eskuak hozten zaizkionean jolasa uzten du. Kutxetarantz abiatzen da, izozkailuko atea zabalik eta pizzak kanpoan pilatuta utzita.

Bidean, xaboiak eta txanpuak ikusten ditu. Bat irekitzen du eta tu egiten du barruan. “Lerdo hauek zergatik ez dute prezinturik jartzen?”

Bere erosketari begiratzen dio: hiru jogurt, bakoitza zapore batekoa. Orga pasilloaren erdian utzi eta alde egiten du.

Etxean sartzean, telebista piztu eta bolumena igotzen du. Nonahi barreiatuta dauden kartoizko kutxak saihestuz, bere logelara iristen da. Are kutxa

gehiago daude bertan, sabairaino pilatuta. Bi bloketan banatuta dauzka: errebisatutakoak eta errebisatu gabekoak.

Errebisatu gabeko kutxetako lehenengoa irekitzen du. Barruan dozenaka traste daude: pitxiak, pila agortuak, estalkirik gabeko boligrafoak, arropa eskegitzeko pintzak, linterna hondatu bat, torlojuak, imanak, taparik gabeko urruneko aginte bat, tiket zaharrak.

Edukia lurrera bota eta adi-adi gauzak banan-banan ordenatzen ditu. Ezkerrean, zaborrera botatzeko diren gauzak. Eskuinean, gordetzekoak.

Bere sailkapen-lanean buru-belarri ari dela, txirrinak jotzen du.

Atea irekitzean emakume gazte bat ikusten du, haurtxo bat besotan daramala. Larrituta dirudi.

– Kaixo, arratsalde on. Eeeeeee... zure ama etxean dago?

– Ez. Zer nahi duzu?

– Barkatu molestutzen badizut, baina umeak siesta egin dezan saiatzen ari naiz. Inporta al dizu telebistaren bolumena jaistea?

– Telebista ikusten ari naiz eta bolumen egokian dago. Baxuago ez dut aditzen.

– Eske, dena entzuten da, badakizu nolakoak diren etxe hauetako paretak... Benetan eskertuko nizuke, umea neka-neka eginda dago... eta ni ere bai. Inporta dizu?

– Bai, inporta dit. Nire aisialdian nago, neure etxean, eta dezibelio kopurua legezkoa da. Ezin dezaket berdina esan zuetaz, zure ume hori gauean negarrez hasten denean— atzamar erakusleaz haurtxoa seinalatzen du.

– Baina... baina haur bat da, ezin dezaket ezer egin... Ez da gauza bera.

– Lehenago pentsatzea zeneukan— atea ixten dio.

Kutxak antolatzen aurrerapen nahikoa egin duela iruditzen zaionean, atsedean hartzen du. Besoak eta lepoa luzatzen ditu, gogortuta baitauzka. Erlojuari begiratzen dio: “Ama laster etorriko da”.

Sukaldera doa. Hainbat kaxa daude hemen, “berriak”, logelakoak ordenatzen amaitzen duenean arakatu beharrekoak.

Bi kutxa baztertzen ditu hozkailura iristeko. Marmeladazko otarteko bat egiten du eta badoa etxetik.

Igogailuaren botoia sakatzean konturatzen da ezkerreko eskua marmeladaz zikindu duela. Botoian garbitzen du.

Sartzera doanean, ondoko bizilaguna etxetik irteten da. Berrogeita hamar urte inguruko emakume mardul bat da. Irribarrez begiratzen dio atea giltzez ixten duen bitartean, eta eskua altxatzen du, itxaron diezaion.

Berak, aldiz, igogailuan sartu eta 0 botoia sakatzen du behin eta berriro. Atea itxi arte emakumearen begiradari eusten dio.

Atarian eskua garbitzen amaitzen du, baina jakako mahuka ateko eskutokian kateatzen zaio. Besoa astindu arren ezin daiteke askatu. Azkenean, indarrez tiratu eta eskutokia errotik ateratzen du.

Bere ahalmenaz harrituta, ibiltzen hasi eta auzoaren amaierako errepideraino iristen da. Errepidea hurrengo herriraino doa, itsasoaren ertzetik. Ez da ia inor oinez pasatzen; horregatik, semaforoa botoiduna da.

Botoia sakatzen du. Berehala gorri ipintzen da autoentzat. Semaforoan zain dagoen autoko gidaria begira geratzen zaio, baina berak ez du egiten beste aldera pasatzeko zirkinik. Azkenean, semaforoa kolorez aldatzen da, eta gidariak, haren ondotik pasatzean, “Baina zertan zabiltza, ergela!?” oihukatzen dio. Berak mespretxu imintzio batekin erantzuten du.

Beste lau zapabost aldiz sakatzen du botoia, kontrako espaloiara joan gabe, eta gidarien aurpegiei erreparatzen die: batzuk nahigabetuta daude, besteak haserre, beste batzuk ez dira gertatutakoaz ohartzen... Erreakzio guztiekin gozatzen du berak.

Aspertzen denean, ibiltzen hasten da berriro. Tristura handi batean murgiltzen da, iluntasunik beltzenean. Larritasunez hartzen du arnasa.

Nerabe birekin topo egiten du. Berriketan ari dira; so egiten diote eta hizketan segitzen dute, barrez. Bera atzetik hasten zaie.

– Zeri barre?

Gazteak isildu egiten dira.

– Ez, lasai, ez gara zuri buruz ari– erantzuten diote, adeitasunez.

– Zeri barre?!?!?

Gazteek burua makurtu eta beren bidetik segitzen dute, isilik. Baina berak ez die ihes egiten utzi nahi. Haiek gero eta azkarrago dabilta, noizean behin burua atzera jiratuz. Halako batean, korrika hasten dira.

– Zeri barreeeeeeee?!?!?– oihukatzen du, intzirika.

Etixeranzko bidea hartzen du, motorraren bila, baina ez du aurkitzen. “Non aparkatu ote dut? Zer egin dut motorrarekin? Non egon naiz gaur?”. Larritzen da.

Hogei minuturen ostean, etxe ondoko aparkalekuan aurkitzen du. Orain oroitzen du nola utzi duen bertan, aparkatzeko bi toki okupatuz, supermerkatutik itzultzean.

Giltza biratu eta badoa. Haizea aurpegian sentitzen duela, arnasketa lasaitu eta kolorea bueltatzen zaio aurpegira. Abesten hasten da, bere biriketako indar guztiarekin.

Itsasertzeko bidean sartzen da. Poliki gidatzen du. Bihurgune mordoa dago, eta berak errei osoa hartzen du; atzeko autoek ezin dute aurreratu.

Azkenean, Alargunen behatokira iristen da. Hala esaten diote, itsasoan galdutako arrantzaleen emazteak hona etorri ohi zirelako goizero itsasoa behatzera esperantza izpi bat zuten artean.

Behatokia errepidearen ondoko irtengune batean dago eta, gaur egun, jendeak autoa aparkatu eta itsasoko ikuspegia mirestekoa erabiltzen du.

Ez dago inor. Motorra bide bazterrean aparkatzen du. Atzetik zetorren auto ilarak aurreratzen duenean, bozina jotzen diote denek; irainen bat ere oparitzen diote. Une batez grazia egiten dio, baina laster iluntasuna gailentzen da berriro. Hasperen egiten du. Oso nekatuta dago.

Behatokiko barandara gerturatzen da. Bere azpian, 30 bat metro beherago, hondartzako aparkaleku handia dago; urteko sasoi honetan ez dago ia autorik. Aparkalekuaren amaieran jatetxe ospetsu bat dago eta, ondoren, hondartza eta itsaso zabala.

Itsasoari beha gelditzen da momentu batez. Sakon arnastu eta barandaren gainean esertzen da. Aurrerantz kulunkatzen da.

Azken unean, ordea, iritziz aldatu eta lurrera jaisten da. Motorra errepidera ateratzen du, bultzaka. Espaloitik begiratzen dio, bidearen erdi-erdian utzi duela ziurtatzeko.

“Bai, orain bai”, pentsatzen du eta, behatokiaren azpiko aparkalekura amilduz, bere motorrak errepidean sortuko dituen auto-ilarak imajinatzen ditu, irribarretsu.

INSPIRAZIOAREN BIDE BIHURRIAK

Alberto Sandonisek ez du lan egin beharrik, dirutza bat jaso baitzuen aitonarengandik. Gizon zuhur hark bizikleten balazta-sistema modernoa asmatu eta patentea erregistratu zuen. Harrezkero, norbaitek bizikleta bat erosten duenean, diru horren apurtxo bat Albertoren familiaren sakelara doa. Eta sakela sakona da, dudarik ez izan.

Alberto Sandonisek ez du lan egin beharrik, baina egin egiten du. Idazlea da.

Hartara, hiriaren erdi-erdian bizi da, jendez inguratuta egoteko; haien artean infiltratutako poeta bat dela pentsatzen du. Giza eszena arruntak, hilkor xumeen dramak ikustea atsegin du eta, disimuluan, oharrak hartzen ditu. Lehengo indioek uste zuten argazki-kamerek arimak osten zituztela, baina boligrafoak dira egiazko arima-lapurrak.

Gaur pozik esnatu da eta, optimismoz gainezka, gortinak parez pare irekitzen ditu. Ederra dago kanpoan. Kalera irten eta astelehen goizaren energia xurgatzen du.

Makatzeta klub pribatuko igerilekuan ez dago inor ordu honetan, eta luze batzuk egiten ditu, plazer handiz. Dutzatu ostean, klubeko jatetxe eskusiboan gosaltzen du.

– Armando, betikoa, mesedez.

– Bai, jauna.

– Eta? Zer moduz asteburua? Zer egin duzue?

– Oso ongi, jauna. Larunbatean Larrituko landara eraman nuen familia, koinatuarekin barbakoa bat egiteko.

– Bai? Ederki, Armando. Ondo pasatzeko ez dago aparteko planik egin beharrik. Eta igandean?

– Atzo lana tokatzen zitzaidan...

– Tira, dagoenean bon-bon, eta ez dagoenean, hor konpon!

– Bai, jauna, eskerrik asko, jauna.

lpad-a pizten du. “Langile konformista bat hiriko parke ziztrin batean. Patetismo neoproletarioa esploratu. (Telebistarako seriea edo dokumental faltsua?)”.

Haren oharrak ere artelanak dira.

Sabela eta arima ondo beteta, kalera abiatzen da. Asfaltozko oihanera. Inguratzen duten intsektu hauek, aberatsenak ere, koitadu hutsak dira. Beti edukiko dute bizimodua atera beharra, berdin da barbakoarako ikatza erosteko izan, nahiz Audia ordaintzeko izan. Benetako askatasuna aitona Marianok asmatu zuen.

Dr Music disko dendan sartzen da, hiriko handiena. Bigarren solairuan hasten du txangoa. Ordu honetan adineko jendea eta gaztetxoak baino ez daude. Musika klasikoa eta musika bokala arakatzen ditu, elkarrikitza interesgarriren bat aditzeko itzaropenarekin. Alferrik. Hemen jende zaharra baino ez dabil, banaka, patxada osoarekin diskoen azalak eta kontrazalak irakurtzen.

Azken *hit*-en atalean, berriz, mugimendu gehiago dago. Gazteak, institutura piper eginda, binaka edo taldeka datoz. Bi neskari erreparatzen die. Haiengana hurbiltzen da, disimuluan. Hurreratu baino lehen badaki zer duten hizpide: haietako baten mutil-laguna. Diskoak hartzen eta irekitzen dituzte, baina ez diete apenas arretarik eskaintzen: askoz interesgarriagoak dira Rebekaren mutilak (edo mutil ohiak, oraindik ez daki) egin dizkion txakurkeriak.

Rebekaren mutila (edo mutil ohia) Rebekaren lehengusinarekin (!) nola enrollatu zen entzuten ari da, baina jakin-minak hil zuen katua: neskak ohartu dira beraren presentziaz, eta badoaz dendatik.

Paseo bat ematen du eta Lumbier jatetxean sartzen da. Astelehenetan irekitzen duen jatetxe on apurrenetakoa da. Dozena bat *restaurant* identifikatuta dauzka, bai berak probatu dituelako, bai lagunek aipatu dizkiotelako, bai moda-albizkarietan begiz jo dituelako. Egunero leku berean ez jateko, tartekatu egiten ditu, baina ez beti ordena berean: artista da, ez bulegaria.

Jatetxeak zigortuz eta sarituz disfrutatzen du. Adibidez, Gure Etxean lupia pixka bat lehor ateratzen badiote, agian bi aste edo hiru emango ditu etorri gabe. Eta, esate baterako, Elantxoben menestra bereziki goxoa eta zaporetsua ateratzen badiote, beharbada eskupeko handiagoa utziko du edo bere editorea bertara eramango du hurrengo hitzorduan.

Gaurkoa balekoa izan da. Balekoa, kontuan izanik ordaindu duen diruarekin Armandok familia osoarentzako haragia erosi lezakeela bere auzo xumea.

Arratsaldean kaleak animatzen dira. Jendeak beste aldarte bat du. Lanetik irten dira eta hurrekin parkera doaz, edo lagunekin tabernara... Bizitza soziala hasten da.

Tabernetako lagunak interesgarriagoak dira parkeko haurrak baino. Taberna jendetsuetan sartzen da, hortaz. Berak bestelako tokiak gurago ditu, dotoreak, Makatzetako taberna bezalakoak. Baina erokeria litzateke horrelako leku batean inspirazioa bilatzea: jende diruduna hain da handiputza, ezen ez bailiokete ezezagun bati hainbeste hurbiltzen utziko. Klasea espazioaren bidez adierazten da, diruaren bidez adina... edo gehiago, dirua ez bezala, espazioa finitua baita.

Gaur, ordea, ez da bere eguna. Bezeroengana hurbiltzen da, zerbitzariekin hitz egiten du... baina ez die zukurik ateratzen. Eguna indarrez hasi duen arren, nahiko pattal amaitzen du.

Biharamun goizean, Armando ez dago klubeko tabernan. Beste zerbitzari batek esaten dionez, egun librea du gaur. Alberto minduta dago; areago, irainduta sentitzen da. Pentsatzen du, agian... agian, klubeko bazkideei kontsultatu beharko litzaizkiekeela halako gauzak.

Albertok bezperako ideia garatzeko asmoa zeukan eta orain antsietate puntu bat sentitzen du. Eta ez bazaio beste ideiarik otutzen? Eta jenioak, duendeak abandonatu badu?

Armandoren telefonoa eskatzeko zorian dago, zerbait kontatu diezaion, berak ezagutzen ez duen bizimodu deprimentean inspirazioa aurkitzeko. Horren orde, Magdari deitzen dio.

– Magda, aspaldiko... Aizu, afaltzera gonbidatzen zaitut... Bai, gaur bertan... Mmmm, Ilunbera? Ados, zure bila pasako naiz... Bai, badakit taxiak daudela baina Jaguarra garajetik atera behar dut, ondo datorkio noizean behin bueltatxo bat egitea. Gero arte.

Ez zuen baiezkoa espero, emakume okupatua denez gero.

Magda laguna du aspalditik, eta, boladaka, maitalea ere bai. Magdak gazte ezagutu zuen bere senarra, Lucio, eraikuntzaren munduan aberastutako enpresari porrokatua. Ezkondu ostean ez du berriro lanik egin, eta ikasteko,

bidaiazeko eta jendea ezagutzeko aprobetxatu du. Nahiko bizimodu liberala du, eta Luciok bakea ematen dio, beti dagoelako kanpoan, lanean, bere hurrengo negozioan pentsatzen.

Magda oso zorrotza da bere buruarekin, baita besteekin ere. Horrek Alberto estimulatzeko eta erakartzen du. Esku artean erabaki potoloren bat baldin badu, berarekin kontsultatzen du, eta hark beti ikusarazten dio berari oharkabea pasatzen zela.

Iluntzean Magdaren bila doa autoan. Ederra dago. Elkarri bi musu eman, eta jatetxera abiatzen dira. Hondartzako parkinean aparkatzen dute: ia hutsik dago.

– Utz dezagun hemen autoa eta goazen paseo bat emanez.

Ilunbe jatetxea muino batean dago eta terrazako zutabeak hondartzan jarrita dauzka: badirudi hankak itsasoan sartzeko eta kostaldearen legeari pixa egiteko prestatzen ari dela.

Mahairik onenean daude, nola ez, eta hortik itsasoaren gainean afaltzearen sententzia daukate.

– Eta zer buruhausteri zor diot plazer hau, Alberto? Utzi zaituen maitale bati? Zalantzak pizten dizkizun inbertsio bati? Eleberri baterako inspirazio faltari?

– Hirugarrenari, esango nuke.

– Etorriko da, etorriko denez.

– Bai, baina agian atea ireki beharko nioke eta sartzera gonbidatu, ezta? Ez dakit ulertzen duzun sortzaile batentzat ze gogorra den ideiarik gabe gelditzea.

– Ez, ez dakit. Eta sabela bete behar duen sortzaile batengatik errukia sentituko nuke... beharbada. Baina betetzeko egoa baino ez daukan batengatik, ez. Hemengo lanpernak mamitsuagoak izaten ziren lehen. Pena...

Magda, dotoreziaz mozorrotutako sorgina. Albertok ezin du erabaki maitatu ala gorrotatu.

– Tira, eta zu? Lagunei labankadak emateaz gain, zertan ari zara aspaldian? Ze moduz zabilta?

– Benetan interesatzen zaizu, Alberto? Ez zait inporta zure dilema eta buruhausteez hitz egitea, dibertigarria da. Baina, galdetu didazunez..., karitate-

lanetan lanpetuta ibili naiz. Hiru kontinentetan zehar banatzen dut nire eskuzabaltasuna.

– Beti daukazu ni harritzeko ahalmena, ezin ukatu. Zorionak, pozten naiz. Besteei laguntzea ondo dago beti.

– Besteei laguntzea? Bai, baliteke. Lanik egin gabe lan egitea dela esango nuke. Baina zuk badakizu hori zer den, ezta, maitea?– Alberto erantzuten ahalegintzen da, baina Magdak jarraitzen du–. Besteei “laguntzeaz” gain, nahiko sare interesgarria osatzen ari naiz: asko gustatzen zait ekitaldiak prestatzea, fondoak biltzea... horrelako gauzak. Filantropia da gaur egungo benetako “luxua”. Bostehuna euroko afariak antolatzea, egundo ezagutu nahiko ez nukeen jendilaje baten alde.

– Bai, horrela ikusita, emozionantea dirudi. Ikusten dut zure zinismoa ez dela milimetro bat ere kamustu, maitea.

Topa egiten dute.

Aparkalekura abiatzen dira, besotik helduta, isilik, gau iluna lagun. Albertok irribarre bat du aurpegian. Bapo afaldu du eta elkarrizketaz izugarri gozatu du. Ez da ohikoa. Ez du ideia zehatzik atera hurrengo proiekturako, baina datozen bi egunak Magdak esandakoak deszifratzen emango ditu.

Autora iristen ari dira eta oraindik ez daki berarekin oheratu nahi duen edo ez.

– Alberto, zurekin gaua pasatzera gonbidatu ala ez pentsatzen ari zara, ezta? Ez ezazu sufritu. Datorrena datorrela, ez nuke...

– Ostia!! –Alberto ezin da mugitu.

Magda aztoratzen da. Albertoren begiradari jarraitzen dio: Jaguarraren sabaia guztiz mailatuta dago. Gainean zerbait dago. Zerbait ez, norbait.

– Ostia!!

Magdak Albertoren besoko giharrak tenkatzen nabaritzen ditu.

– Hilda dago?

Albertok begirada Alargunen behatokira altxatzen du.

– Aizu, baina niri nork ordainduko dit hau?

– Esan dizut, jauna. Aseguruarekin hitz egin beharko zenuke –errepikatzen du agenteak.

Albertok Magdari begiratzen dio. Polizia-auto baten barruan eserita dago eta lasaigarri bat eman diote.

– Epaileak gorpua altxatu behar du. Tira, nik etxera joatea gomendatuko nizuke. Eta bihar, lasaiago, hitz egin aseguruarekin.

Alberto Magdarengana doa, eskuak jasota, zer eginik ez dagoela adieraziz.

– Funtzionarioak... Tira, deitu diezaiogun taxi bati. Zeure etxera joan nahiko duzu, ezta?

Magda lurrari begira dago, zurbil, eta baietz esaten du buruarekin.

– Zurekin joatea nahi duzu? Lucio kanpoan dago, ezta? Agian ez duzu bakarrik egon nahiko...

– Lasai, Alberto, ondo nago. Nahiago dut bakoitza bere etxera joatea. Oso nekatuta nago.

Albertok Magdaren helbidea ematen dio taxilariari. Abiatzen direnean, andre zahar bat ikusten du poliziekin, negarrez. Hurrengo egunean egin beharreko deiaz pentsatzen du: “Aizu, aseguru jauna edo andrea, emakume batek amildegi batetik salto egin du eta autoa, Jaguar bat, hondatu dit. Konpondu ezazue”. Erraza.

Oso gaizki egin du lo, baina metabolismoak goiz jaikitzeke agintzen dio.

Igerilekura joan aurretik, aseguruari deitzen dio; horrela eginkizun gogaikarri hori gaineratik kenduko du. Baina ez da tramite sinplea, inondik ere ez. Telefonoaren beste aldean dauden makinek eta pertsonen azaltzen diote aseguruak ez dituela horrelako kasuak estaltzen. Bakarrik kalteak *nahita* egin badira. Hau da, norbaitek emakumea autoaren gainera *apropos* bota baldin badu. Edo berak *apropos* salto egin badu. Eta sinatutako adierazpen batek soilik frogatu lezake hori.

Ohi baino denbora gutxiago ematen du igerilekuan. Jenio txarrez dago. Aise ordaindu lezake autoaren konponketa, baina uste du asegurukoek ziria sartu diotela. Muturrean eman nahi die.

Klubeko tabernan gosaltzen duen bitartean, Armandori telefonoa eskatzen dio, polizia-etxera deitzeko. Bezperako suizidioko arduradunarekin hitz egin nahi du.

“Itxaron pixka bat”, esaten diote.

Armando mahaira hurbiltzen zaio, zukua, kafea eta kruasana erretilu batean dakartzala.

– Hemen duzu, jauna.

– lxxxxxoooo– Albertok atzamarra jartzen du ezpainetan eta telefonoa seinalatzen dio.

– Barkatu, jauna.

Albertok keinu bat egiten dio, eragozpena barkatzeko bezain eskuzabala dela adieraziz.

“Jende hau...”

Azkenean, kasuaren arduradunarekin hitz egitea lortzen du, Uribarri agentearekin, baina ez dio soluziorik ematen. Ez omen dago argi “suizidioa” izan dela. Eta gainera ezin du informazio hori telefonoz eman.

– Baina atzo bertan hitz egin genuen! Badakizu nor naizen, Alberto Sandonis.

– Sentitzen dut, jauna. Gure konfidentzialtasun-arauak oso zorrotzak dira.

– Aizu, gazte, Jaguar bat da!

– Hona etorriko bazina, errazagoa izango litzateke dena.

Gogo txarrez, telefonoa eskegi eta polizia-etxera abiatzen da.

Uribarri agenteak hartzen du han, eta bere mahaira gonbidatzen du. Berak bulego bat espero zuen, bere arazoa lasai azaldu ahal izateko, baina kubikulo ziztrin batean esertzen dira, agente gehiagoren artean. Gogoan apuntatzen du detailea, noizpait eleberri poliziako bat idatzi behar balu ere.

Albertok aseguruarekin izandako arazoa azaltzen dio, eta Uribarri haserre dirudi.

– Kabroi horiek...

Albertok irribarre egiten du. Norbaitek ulertzen dio!

–... baina zoritxarrez nik ezin dezaket ezer egin. Ea... non dago espediente... Hemen... Hara, oraindik ez diote autopsia egin, baina guztiz ziur nago: forentseak ez du paperean idatziko suizidioa izan denik. “Suizidioaren ondorio izan litekeen heriotza”. Horixe idatziko du.

>>Kontua da ez dagoela frogarik. Familiaren testigantza garrantzitsua izan liteke erabakitzeke suizidiorako motiborik ba ote zegoen. Hortik jo zenezake. Gure ikuspegitik, baliteke suizidioa izatea, baliteke istripua izatea, edo hilketa... Ez dakigu. Ikerketa bat abiatu dugu, noski, baina ez dut uste pista asko aurkituko dugunik.

– Eta noiz jakingo duzue?

– Auskalo. Agian bihar, agian sekula ere ez. Seguruenik, inoiz ez. Ez aurrera ez atzera geratzen bagara, kasua itxiko dugu. Oraingoz ezin dizut gehiago esan. Itxaron, mesedez— jotzen ari den telefono bat seinalatzen du.

Uribarrik deia hartzen duen bitartean, Alberto jabetzen da ez duela ezer argituko. Mahai gaineko espedienteari begiratzen dio. Eskuz izen bat eta “Biktimaren ama” oharra dago idatzita. Helbide batekin batera. Buruz ikasten du eta, Uribarriri keinu bat eginez, badoa.

“Nire eskaera guztiz zentzuzkoa da”, pentsatzen du Albertok aldirietako etxe-bloke handi baten aurrean.

Erdiguneko abangoardiako urbanismotik eta azken joeretatik urrundutako auzoetan aspaldi ez du oinik ezarri. Ez zuen faltan botatzen.

Eraikineko ataria zabalik dago eta norbaitek eskutokia lapurtu du. Basatiak...

Eskailerak igo eta txirrina jotzen du. Bart hondartzako parkinean poliziarekin ikusi zuen atsoak atea irekitzen dio.

– Bai? Nor zara?

– Kaixo, andrea. Zera... barkatu molestazeagatik, baina... uste dut zure alabak... ejem, tira... nire autoa guztiz mailatuta dago.

Andrea begira geratzen zaio.

– Ai, zurea al zen autoa? Sartu, sartu. Orain ulertzen dut.

Albertok eskerrak ematen dizkio totalka eta etxean sartzen da. Lotsa puntu bat sentitzen du.

Etxean, ezin du ikusten ari dena sinetsi: pasilloa kartoizko kutxaz beterik dago, baita sukaldea ere. Usain mingotsa dator barrutik.

Andreak kafea eskaintzen dio.

– Benetan sentitzen dut, jauna, baina... guk ez daukagu dirurik.

– Ez, andrea, ez... Rosa, ezta? Ni Alberto naiz. Ejem. Lasai egon zaitezke. Ez dut zure dirua nahi. Uribarri agenteak esan dit zure alabak ustez salto egin zuela. Paper bat sinatzea baino ez dut behar, zure alaba, ejem, suizidatu zela uste duzula esplikatzen.

– Hori baino ez? Eta niretzat ez da kaltegarria, ezta?

– Inola ere ez. Neuk erredaktatu dut. Aseguruari aurkeztuko diot, haiek autoaren konponketa ordainduko didate, eta kito.

Albertok karpetan dakarren papera erakusten dio Rosari eta hark irakurri gabe sinatzen du, esku dardarti batekin. Nabari zaio ez dela oso emakume eskolatua.

Uste baino errazagoa izan da. Alberto pozik dago.

Eskua aulkiaren bizkarraldean jartzen du, zutitzen laguntzeko, baina andrearen tristurak hunkitzen du.

– Ondo zaude?

– Nola egongo naiz ondo? Ezin dezaket esan harritu nauenik, baina gogorra da ama batentzat. Ai, gure Evita...

Hildakoaren izena ez zekiela konturatzen da Alberto. Ezta izena zeukanik ere.

– Inoiz ez zen ondo moldatu hirian. Gu herri txiki batekoak gara, berez. Baserritarrak. Baina alde egin behar izan genuen.

Albertok jakin-mina sentitzen du. Oraindik ere aulkiaren bizkarrari heltzen ari zaio eskuarekin, baina ezin du erabaki altxatu edo ez.

– Alde egin *behar*? Zer jazo zen, ba?

– Bueno... herri txikietan... badakizu... tragediek zurrumurruak dakartzate.

“*Tragediak?* Ez daukat inora joateko presarik”, pentsatzen du Albertok, eta eroso esertzen da.

– Nire senarra, Aurelio, Evitaren aita, txerri-hiltzailea zen. Eskualde guztiko baserrietan ibiltzen zen. Basoak ere bagenituen. Baginen nor herrian.

»Egun batean, Evita txikia zela, Aurelio baserri batera joan zen. Etxeko nagusiak txarriboda egin nahi zuen bere alerik handienarekin: begi bakarreko euskal txerri ederra zen. Aurelio goizetik joan zen baserrira, aberea ikusteko, eta jabeak bakarrik utzi zuen kortan.

»Ez dakigu nola, baina badirudi Aureliok gorotza zapaldu eta lurrera erori zela. Buruan kolpe bat hartu eta konorterik gabe geratu zen. Txerria gose zen, nonbait...

Andrea zutitu eta katilu hutsa kafez betetzen dio berriro Albertori.

– Etxeko nagusia iritsi zenerako... txerriak aurpegi erdia jan zion Aurelioni. Guztiz desitxuratuta geratu zen. Hor hasi zen gure zorigaiztoa. Herrian trufa egiten zioten. Geroago, esaten hasi ziren Aurelio eta txerria... bueno, badakizu, Aureliok txerria estali nahi izan zuela. Alderantzizkoa ere esan zuten...

Rosa negarrez hasten da. Albertok, errukituta, besoa jartzen dio lepoaren gainetik. Besarkatzen du, baina ez daki zer egin. Negar egiteari uzten dio azkenean.

– Barkadazu, jauna, hau ez zaizu interesatuko eta gainera oso desatsegina da.

– Ez, Rosa, ez larritu. Gustura ari naiz entzuten.

– Oso ona zara. Autoa hondatu dizugu eta gainera nitaz errukitzen zara...

– Bueno, bueno... ez da zure errua. Egon lasai.

– Bai. Gure Evita hau... oso neska zaila zen. Begira nola daukadan etxea, haren kutxaz beteta. Zer egingo dut honekin guztiarekin? Sartu, sartu barrura.

Alberto pasilloan zehar ibiltzen da, logela bateraino. Bertan, kartoizko kutxak sabaira iristen dira. Usaina txarragoa da hemen, leihoak sekula ireki ez balira bezala. Goragalea sentitzen du.

– Tira, Rosa, mila esker zure sinaduragatik. Ez dizut denbora gehiago kenduko. Oso atsegina izan da. Egoera kontuan izanda, noski.

– Eskerrik asko zuri, Alberto. Zatoz nahi duzunean, ongi etorria zara etxe honetan.

Kalean bero egiten du. Jaka eskuan daramala, eguzkia sentitzen du kopetan eta zorabiatzen da. Banku batean esertzen da une batez. Ama-alaba bi pasatzen zaizkio ondotik eta mesfidantzaz begiratzen diote. Suspertzen denean, taxi bat hartzen du zibilizaziora bueltatzeko.

– Bueno, zer deritzozu?

– Interesgarria. Higuingarria, baina interesgarria– onartzen dio Magdak.

– Handik irten nintzenean fisikoki gaixotzen nintzela sentitu nuen. Andre gizajoa... –ez du nahi Evitaren aitaren istorioaren oroitzapenak azpizunaren zaporea hondatzea–. Bide batez, haragia, bikaina.

Magdak, tente-tente, nagusitasun keinu bat egiten dio bekainarekin, berak aukeratutako jatetxeko haragia bikaina ez izatea xelebrekeria bat balitz bezala.

Bi ordutara, ohean daude, Albertoren etxean.

– Magda, lehengo kontura bueltatuta... ez duzu uste andre hori zure karitaterako hautagai on bat dela?

– Suizidaren ama? Bai, zera. Ezin nezake istorio groteskoagorik imajinatu. Nire karitate-lanak urrun bizi diren gizajoentzat dira. Zuk, berriz, etekina atera zenezake hortik.

Albertori barretxo bat eskapatzen zaio. Magdak ederki ezagutzen du.

– Istorioa primerakoa da– erantzuten dio.

– Eta zerutik eroria. Literalki.

– Ja, ja, ja. Bai... Ez didazu sinetsiko, baina pena pixka bat ematen dit... Gaizki sentitzen naiz istorioa lapurtu diodala pentsatzen dudanean.

– Lapurtu? Hori ez da lapurtzea. Nahi izan duelako kontatu dizu, ezta? Har ezazu, beraz.

– Bai, baina betiere zuk egia jakingo duzu eta apetak ematen dizunean aurpegiratuko didazu, ezta?

Magdak barre egiten du eta izaren azpian sartzen dira berriro.

– Arratsalde on, Alberto. Ze bisita atsegina.

– Arratsalde on, Rosa. Plazera neurea da.

Sukaldera sartzen dira, kutxa artean, eta Rosak kafea ateratzen dio.

– Hara, Rosa. Sentitzen dut aurrekoan hain azkar joatea. Zure kontakizuna erditik moztu nizun eta... Zera...

– Ez duzu barkamenik eskatu behar. Balio izan dizu paperak?

– Bai, eskerrik asko. Autoa konpontzen daukat dagoeneko. Eta bien bitartean ordezeko bat utzi didate. Ondo portatu dira.

Isilik geratzen dira biak.

– Ez dakit, Rosa. Iruditu zitzaidan norbaitekin konpartitu nahi zenuela zure familiaren istorioa, Evitaren istorioa.

Rosa segundo batzuez isilik geratzen da, eta gero irribarre egiten du berriro.

– Oso jatorra zara. Gogoratzeak batzuetan laguntzen dit, bestetan ez... Bueno, Evitaren haurtzaroa latza izan zen. Inoiz ez zen oso ederra izan. Eta istripuarekin... umeak okerrak dira. “Txerritxo” deitzen zioten. “Txerrikumea”. Aitari buruz ere egundokoak entzun behar izan zituen. Txerriarekin zertan ari ote zen eraso egin zionean... Aurelio ez zen inoiz berdina izan harrezkero. Istripuaren egunetik aurrera ez zuen gehiago hitz egin. Bere munduan sartuta zegoen— Rosa bere pentsamenduetan galtzen da.

– Eta orduan zer gertatu zen? Hirira etortzea erabaki zenuten?

– Ez, hori geroago izan zen. Herrian jipoitu zutenean hondoratu zen Evita, zeharo. Zorionez, baserria eta lurrak geneuzkan, eta aurrezkiak ere bai. Dena saldu eta hona etorri ginen. Ordutik hemen bizi izan gara. Ez dakit asko lagundu ote zigun... Evita ordurako hautsita zegoen. Ez zen inortaz fidatzen,

ezin zitzaion ezer esan. Oso bizitza petrala izan dut– begiak eskuekin estali eta negarrez hasten da.

– Bueno, bueno. Lasai egon, lasai. Amaitu da, Rosa.

– Urte luzez ez dut inor ondoan izan hitz egiteko. Denek ematen ziguten bizkarra– zapi batekin mukiak kentzen ditu negar-zotinka. –Herrian, txerri-hiltzailearen emaztea eta Evita zoroaren ama nintzen. Lehenengo, senarrak istripua, eta gero alabaren desgrazia...

– Ze desgrazia, Rosa? Lehen esan duzu jipoitu zutela. Zer gertatu zen?– Albertok sumatzen du istorio lazgarria izango dela, baina den-dena jakin nahi du.

Rosak zintz egiten du mukizapian eta, baretzeko, ilea atontzen du.

– Hara, egun batean, Evita enkargu batzuk egitera joan zen kalera. Ez zen itzultzen eta ni kezkatzen hasi nintzen. Ez nuen Aurelio etxean bakarrik utzi nahi, baina azkenean herrira abiatu nintzen. Segidan aurkitu nuen, gure baserriko bidean, noraezean. Erdi biluzik zegoen, arropak urratuta, odolez beteta. Sekulako jipoia eman zioten eta abereren baten odola bota zioten burutik behera. Auzoko baten laguntzaz etxera ekarri nuen. Gaixoa... Bainuontzian sartu nuen eta berak ez zuen ezer esaten. Ez zidan begiratzen. Ez zeukan espresiorik aurpegian. Tua botatzen zuen denbora guztian.

Alberto zorabiatuta sentitzen da berriro.

– Barkatu, komuna erabili dezaket?

– Bai, noski, pasilloaren amaieran.

Pasilloaren bukaeran, ezkerrean, ate bat dago. Baina Rosak sukaldetik oihukatzen dio:

– Hori ez, eskuinekoa!

Komunean sartu eta aurpegia garbitzen du. Rosak kontatu dionaz hausnartzen du. Istorioa gogorra da, bai horixe. Pertsonaia interesgarri batzuk jarrita... drama neorrural bat izan liteke. Agian Evita bortxatu ere egin beharko dute fikziozko bertsioan. Benetan egin ziotena gutxi balitz bezala...

Gaurkoz nahikoa dela pentsatzen du eta eskuak lehortzen ditu. “Eta senarra? Senarrarena ere argitu behar dut. Noiz hil zen? Zeren... hilik dago, ezta?”, hotzikara bat sentitzen du.

Komunetik irteteen, aurrez aurre daukan ateari begira geratzen da. Jakin-minez, irekitzen du. Ez luke egin beharko, baina gelan sartu eta argia pizten du.

Kutxa gehiago. A ze ezustekoa.

Irtetera doanean, kutxetako bati erreparatzen dio. Ez baita kartoizkoa, zurezkoa baizik. Eskuz landutako kaxa handi eta ederra, inondik ere.

Gerturatu, eta jarrita daukan giltza poliki-poliki biratzen du. Estalki astuna altxatzean atzerantz salto egiten du.

Txerri baten burua dago barruan, disekatuta. Begi bat falta du. Ez du inoiz hain hurbiletik txerri baten burua ikusi eta erraldoia iruditzen zaio. Ondoan, giza kaskezur bat dirudiena dago, momifikaturik. Aurpegiaren alde bat guztiz mailatuta dauka, matrailezur erdia falta zaio. Kiratsa jasanezina da.

Asaldatuta, buelta eman eta gelatik irteten da. Baina Rosa aurkitzen du pasilloan. Haren aurpegia ez da adeitsua. Txerriak eskegitzeko gako bana dauka eskuetan.

– Zer egiten zenuen hor, e? Zer? Kazetaria zara? Telebistako banpiro bat? Gure herriko espioi bat? Zer egiten zenuen hooooorr!?

Albertok izua zer den ikasi du une honetantxe. Nahi duen bakarra handik irtetea da, baina beraren eta irteeraren artean Rosa dago. Korrika abiatzen da eta, begiak itxita, bultza egiten dio. Orduan, burua albo baterantz okertzen zaio eta bulkada bortitz bat sentitzen du atzerantz. Lurrean dago, desorientatuta. Denbora pixka bat behar du gertatutakoa ulertzeko.

Rosaren ondotik lasterka igarotzean, andreak gakoetako bat ahoan sartu eta masaila zulatu dio. Talkaren ondorioz, lurrera erori dira biak. Albertok gakoa aurpegian sartuta dauka oraindik, arrain batek amua bezala. Ateratzen saiatzen da baina ukitze hutsak izugarrizko mina egiten dio.

Odolez blai, zutitzen da. Ahul sentitzen da eta buruaren atzeko aldean mina du, zoruaren kontra hartutako kolpearen ondorioz.

“Ez! Ezin dut kordea galdu. Bestela ez naiz inoiz hemendik bizirik aterako”, pentsatzen du.

Apurka-apurka aterantz abiatzen da, pasilloko hormaren kontra bermatuta. Urrats bakoitza ematea alimaleko esfortzua da. Bat-batean ezin du aurrera jarraitu. Behera begiratzen du: orkatila beste gakoarekin inguratuta dauka. Rosa etzanda dago, luze-luze eginda, gakoari tinko helduta. Ezin du aurrera

egin: Rosa, txikia izanagatik, astunegia da eta ezin du arrastaka eraman. Indarge sentitzen da.

Rosak begiak sutan ditu, amorruak janda.

– Zure moduko jendeak kendu dit Evita. Putreak!! Burua hondatu zenioten eta orain nire zaurietara gatza bota nahi duzu. Zuek...

Albertok, desesperazio hutsez, ukondoa atera eta bere gorputzaren pisu osoa Rosaren gainera erortzen uzten du. Jausten den bitartean, borroka libreko gidoi baterako ideia bat pasatzen zaio ziztu bizian burmuinetik. “Punteria ona izatea espero dut, bestela nireak egin du”.

Bete-betea asmatzen du ukondoarekin Rosaren gerrialdean. Emakumearen txilioak ilea lazten dio. Haren gainean etzanda, belaunarekin sudurrean jotzen du bere indar guztiarekin.

Andreak ulu izugarri bat botatzen du. Alberto, orkatila gakotik askatu, eta estropezuka abiatzen da korridorean, aterantz. Rosak soina uzkuratzen eta luzatzen du, zizare zauritu baten antzean, aurrera egin ezinik.

Alberto ahal duen moduan aseguru-etxeak utzi dion autora iristen da, balantzaka. “Zenbat odol galdu ote dut?”. Ez du errepidea ondo ikusten eta buruz dakien ibilbide bat egiten du, ez baitu astirik ospitaleko bidea bilatzeko.

– Baina, baina, zer da hau?– dio Magdak, etxeko atea irekitzen duenean.

– Magda, lagundu...– Alberto zerraldo erortzen da.

Ohe batean esnatzen da. Masaila ukitzen saiatzen da baina benda bat dauka.

– Egun on.

Magda bere ondoan eserita ikusten du.

– Zenbat denbora daramat hemen?– hitz egitean txistua masaileko zauritik irteten zaiola nabaritzen du.

– Gutxi.

“Nondik atera ote du ni oheratzeko indarra? Eta gakoa aurpegitik askatzeko kementa?”

– Lasai, ez zara odolustuko. Masailean zulo bat daukazu, baina haginak oso-osorik. Nire konfiantzako mediku bati deitu diot eta puntuak eman dizkizu. Zauria itxuraz eskandalosoa da baina mamiz eskasa. Zure antzean, zera.

Albertori irribarre-imintzio bat ateratzen zaio, baina mina ematen dio. Sabaira begira geratzen da, aspaldiko partez esker ona sentituz.

– Bueno, esango al didazu zer demontre gertatu den? Hainbat hipotesi dauzkat, baina zoroegiak dira denak.

Une batez, Albertori giharrak tenkatzen zaizkio eta atera begiratzen du, Rosa bere gako hilgarriak astintzen sartuko ote den. Atea ez da irekitzen, ordea. Albertok ohean kolpetxo batzuk jotzen ditu eskuaz, Magdari begira.

– Etzan nire ondoan eta itxi begiak. Imaginatu: herri koxkor bat. Hilketak, abusuak... abere erotuek eragindako istripuak... jendaje ezjakina... marjinazioa... Drama rural bat, alegia. Eta orain, pentsatu gabe, esadazu: telebista ala zinema?

MUSIKA- INDUSTRIAREN ARGILUNAK

Joseba Iturriaga bere nabe industrialeko sofán dago, lo, eta atearen kurrinkak asaldatzen du. Kolpetik irekitzen ditu begiak. “Bisagrak konpondu behar dizkiot”.

JKU musika-taldekoak dira, barre-algaraka.

– Zer, Joseba? Siesta-ordua ala? –adarra jotzen dio Enekok, bateria-joleak.

– Segi, segi lokalera eta utzi bakean.

Taldekoak txantxa artean sartzen dira beste talde batekin konpartitzen duten entsegu-lokalera, hirugarrenera.

Joseba sofán esertzen da. Aharrausi eginez, ilea koleta batean biltzen du. Betaurrekoak janzten dituenean, begien tamaina hirukoizten zaio eta etengabeko harriduran bizi dela dirudi.

“Bueno, bueno”, pentsatzen du, “osteguna”. JKUren eguna.

Nabearen sarreran egongela moduko bat dago. Bertan, aulki pare bat, sofa bat, komun txiki bat, telebista zahar bat, bideokontsola, mahaitxo, hozkailua eta vending makina bat dauzka. Bizitzeko behar duen guztia.

Egongelatik bi pasillo irteten dira. Pasilloetan barrena zenbait ate daude, bakoitza entsegu-lokal batena. Ateetako bat, berriz, bulego txiki batera doa. Bertan, mahai bat, aulki bat, artxibo zaharrak eta kutxa gotor bat.

Sofaren ondoko mahaitxo batzen du: hautsontzia hustu, tabakoa gorde eta pizza prefabrikatuaren hondarrak bota. Aspiradora txikia moketatik pasatzen du eta listo.

Amaitzen duenean, konturatzen da pizza mozteko erabili duen labana ez duela garbitu. Ez da edozein labana: Charles Mansonen jarraitzaileek Sharon Tate hiltzeko erabili zutenaren erreplika bat da. 60ko hamarkadarekin obsesionatuta dagoen lagun batek oparitu zion. Berak denetarako erabiltzen du: jateko, haxix plakak mozteko, kableak zuritzeko...

Aiztoa komunean garbituz, egitekoen zerrenda errepasatzen du. “Osteguna. Gaur bosgarren lokala libre dago. Josu bateria jotzera ez baldin badator, noski. Baina ez dut uste. Laugarrena hosgabetzen jarraituko dut”.

Erreminta kutxa eskuan, laugarren entsegu-lokalera sartzen da. Bertatik, JKUren musika eta ahotsak entzuten ditu, paretak motelduta.

Giltza ingeles astun batekin hormatik torloju bat askatzen duen bitartean, bere kolkorako dio: “Siesta-ordua? Siesta-ordua? Neuk irakatsiko dizuet helduei barre egiten!”. Eta hormari zartako bat ematen dio giltzaz.

Bat-batean konturatzen da hirugarren lokaletik ez datorrela soinurik. Ia hiru ordu briu-brau joan zaizkio laugarren lokala hosgabetzen. Eskailera txikitik jaisten da eta harrotasunez begiratzen die paretei. Lan ona egin du. Erritmo honetan, datorren asterako lokala alokatzeko moduan egongo da.

JKUkoak egongelan daude, entsegua amaituta, erretzen eta garagardoak edaten.

– Aizu, Joseba. Sartu kakahuete gehiago makinan. Eta erretzeko papera.

Egia, kakahuete poltsak eduki beharko lituzkeen apala hutsik dago, eta azken paper-sorta berak erosi du lehenago. “Tximino hauek kakahueteak jan eta zerbeza edan baino ez dute egiten. Ze, jotzen duten musikaz hobe iritzirik ez eman”.

– Bai, arrazoia. Tipoari deitu behar diot. Ea, egin leku bat –sofan dauden bi gazteen artean labaindu eta zigarro bat pizten du.

– Joseba, larunbatean karretilla hartuko dizugu, bai? Kontzertua daukagu –dio batek.

Josebari ez dio graziarik egiten.

– Noooiz eroosiko oteee duzue karreeetilla bat zeueeentzat?!?!– haserretzen denean, hitzak luzatzen ditu, ez oihukatzeko. Horrela, ez du hain zitala ematen. –Hartu, bale. Baina gero utzi zegoen lekuan.

"Ume moko hauen aita izan ninteko", pentsatzen du haiei banan-banan erreparatuta.

– Esaiozu bi tipoena, txo.

– A, bai. Joseba, duela ordu laurden bi tipo etorri dira. Zure adin bueltakoak.

– Bi tipo? Eta ez didazue abisatu? Non daude?

– Joan dira. Musika jarrita geneukan eta ateko kolpeak entzun ditugunerako alde eginda zeuden. Leihotik ikusi ditugu urruntzen.

– Ostia, poopaatik hartzeeeeko ere eeez duzuue baliooo! –eta bulegoan sartzen da, atea kolpatuz.

Bi tipoak Manu eta Txarli izango ziren. Bere “bigarren jarduera”.

Josebak gaztetan etorkizun oparoa zeukan pianoarekin. Edo hori zirudien. Kontserbatorioan, bere mailako ikaslerik finena zen.

Ikasketak amaitzean jazz kontzertuak eskaintzen aritu zen trio formatuan, nolabaiteko arrakastaz. Poligono industrial honetan nabe bat erosi zuen, bere piano isatsdun handia gordetzeko eta taldearekin entseatzeko.

Egun batean, dena amaitu zen. Ez zitzaion ezer berezirik jazo: interesa galdu zuen, besterik gabe. Pianoaren mundua exigentea da eta bera ez zegoen prest egunean bost orduz praktikatzeko, entseatzeko, kontzertuak emateko... Goia joa zuela ulertu zuen. Inoiz ez zela orduan baino hobea izango.

Pianoa saldu eta nabea birmoldatu zuen. Lagun musikari batek eman zion ideia: nabea gela txikitan zatitu, hosgabetu eta musika-talde gazteei alokatu. Horrez gain, noizean behin eskola partikularrak ematen ditu, eta batzuetan, lagun promotore baten bitartez, musika-taldeen gidari lanak egiten ditu. Bizitzeko adina ematen dio.

Baina badauka beste diru-sarrera bat musika-industriaren argi-ilunetan, berak “bigarren jarduera” esaten diona. Gaztetan ikasi zuen jendeari drogak modu pertsonalizatuan saltzea oso aberasgarria dela. Koldo lehengusuarekin, unibertsitatean ikasten zuen garaian, ikaskideei antsiolitikoak errezetarik gabe saltzen aritu zen garai batean.

Gaur egun, Manuk eta Txarlik ekartzen dioten materiala musikarien artean mugitzen du. Pilulak, kokaina, haxixa, anfetamina, estasia... Giro bakoitzerako substantzia bat. Ez da berdina auzoko talde punketa bat edo Europan zehar biratzen dabilen metal talde aleman bat. Nondik uste duzue, ba, ateratzen dituztela drogak hiriz hiri, mugaz muga, aduanaz aduana tourrean dabiltzan musika-taldeek?

Berriki, lagun promotoreak hiruzpalau egunez dinosauro ingeles batzuen gidaria izateko eskatu dio, eta materiala behar du beraientzat. Aste osoa darama Manu eta Txarlirekin kontaktatu nahian eta artaburu hauek eskapatzen utzi diete.

Ume batzuk baino ez dira, ordea. Gehiegi haserretu da. Bulegotik irteten da, barkamena eskatzeko asmoz.

Egongelan, Eneko bakarrik dago, kamiseta barik, arropaz aldatzen. Sekulako gorputza dauka. Josebari zakila gogortzen zaio apurka-apurka.

– Ei! Zeri begira zaude! Perbertitua! –Enekok barre egiten dio.

– Eeezzz!! Zer diozu, marikoi horrek! –Joseba bere senera bueltatzen saiatzen da—. Eta? Larunbatean non daukazue kontzertua?

– Roxy-n, areto txikian. Ez dute asko ordaintzen baina leku ezaguna denez... Agian norbaitek deskubrituko gaitu.

– Gidaria behar baduzue... –dio Josebak, Eneko gustura deskubrituko lukeela pentsatuz.

– Bai, eta zerekin ordaindu? Nire gorputzarekin? Ja ja ja.

– Tira, tira, zoaz lehenbailehen, ixtera noa eta.

Bakarrik geratzen denean, sofán masturbatzen da eta lo gelditzen da.

Ate joka ari dira. Oso gogor. Joseba sofatik jaiki eta ahal duen moduan janzen da. Goiza da.

– Nor ostia...?

Manu eta Txarli dira. Alde batera bultzatzen dute eta egongelan sartzen dira.

– Zelako hatsa! Zelan egin dezakezu lo hemen? Etxetik bota zaituzte?

– Ez, bart berandura arte geratu nintzen lanean.

– Lanean? –barre egiten diote bi gizonek.– Ba gu arratsaldean etorri ginen eta ez zegoen inor. Tira, bizkortu zaitez, enkargu gehiago dauzkagu-eta.

Pilula poltsa bat eta hiru koka zorro jaurtitzen dituzte sofako klinexen artera.

– Bale, egon –dio Josebak, bulegora doan bitartean.

Kutxa gotorraren konbinazioa sartu eta diru justua ateratzen du. Egongelara bueltan, anpli zahar baten gainean uzten du.

– Coca Cola bat? Edo garagardo bat? –esaten du vending makinan txanpon bat sartuz.

Coca Cola bat beretzat eta garagardo bana bere hornitzaileentzat.

– Ez zara aspertzen hemen bizitzeaz? Ume zorritzot horiek inguratuta? – galdetzen dio Txarlik, Manuk dirua zenbatzen duen bitartean.

– Jatorrak dira eta alokairua garaiz ordaintzen dute... gehienek, behintzat. Baina ez naiz hemen bizi. Amarenean nago.

– Amarenean? Batera edo bestera, zenbat urte dituzu? Berrogei? Hau ez da bizimodua. Zelako txerrikorta... –erantzuten du Txarlik, garagardo pixka bat edanez eta ingurua mespretxatuz.

“Eta drogak saltzen dituen nire adineko mozolo batek esaten dit”, pentsatzen du Josebak.

– Bai, bueno, lekua konpontzen ari naiz. Gauzak ez dira errazak, mutilak... Tira, ba, plazer bat izan da. Laster arte –eta atera laguntzen ditu.

Bakarrik geratzen denean, lehenengo eginbeharra, pilulak eta kokaina kutxa gotorrean gordetzea.

Gero, sofako klinexak batzen ditu. Usaindu eta paperontzira botatzen ditu.

Destornilladorea esku batean eta mailua bestean, txistuka ari da laugarren lokalean. Ostiral arratsaldeetan pozik egoten da. Pavloven txakurrek legez, badaki zer datorren gaur. Bigarren lokalean The Black Magicians soul taldeak entsegua du. Lokaletako musikaririk onenak, dudarik gabe; ez daki nola amaitu duten zulo honetan, punkiz inguratuta.

Abeslariak organoa jotzen du eta batzuetan bere lekua uzten dio Josebari, berak kantatzen duen bitartean. Asteko unerik atseginena oparitzen diote.

Mago Beltzek puntu-puntu hasi dute entsegua. Ez dira porrero ugerdo batzuk, musikari serioak baino.

Ordubete ematen die. Gero, burua sartzen du haien lokaleko atetik.

– Zelan dabilta nire beltxingoak???

Taldeak eztabaida baten erdian daude eta atoan isiltzen dira.

– Musika ala kontu pertsonalak?

– Musika –erantzuten diote.

Joseba irribarre zabal batekin sartzen da lokalera.

– Bota.

– Ba... estribilloan bigarren ahots bat gehitu edo bere horretan utzi ari gara eztabaidatzen.

– Kontrapuntu bat.

– Aja –dio Josebak. – Ze kantu? Hau? –eta abesten hasten da, hitzak asmatuz.

– Bai, horixe da –dio taldeko bateriak. – Nola jakin duzu?

– Lokalaren ondotik pasatzean entzun dut. Eta ni kontrapuntuaren aldekoa naiz. Estribilloa beteago geldituko da. Ea ba: Mary, estribilloa.

Mirenek, abeslariak, estribilloa kantatzen du. Josebak kontrapuntua egiten dio, zentzurik gabeko hitzekin oso doinu definitua abestuz. Mirenek deitu eta Josebak erantzuten duela dirudi.

– Berriro.

Lauzpabost saiakeraren ondotik, erabakia hartuta dago. Josebak asmatu duen kontrapuntua sartuko dute. Gitarra-joleak kantatuko du: berak egin ohi du bigarren ahotsa.

– Joseba, jenio bat zara. Talde handien moldaketak egin beharko zenituzke.

– Bai, badakit –ipurdiarekin bultzada maitekor bat ematen dio Mireni, organoan haren tokia hartzeko.

Mirenek, mikroa eskuan, lekua uzten dio, irribarrez.

– Benga, Mary, UAN TZU FRI FOR!

Josebak ez daki abestia jotzen, baina baxu-joleak aldaketa bakoitzean dagokion tonua adierazten dio ezpaineekin, eta moldatzen da. Moldatu baino gehiago: berak gidatzen du taldea.

Bakoitzari noiz sartu agintzen dio. Gitarra-jolea seinalatzen du, solo bat egin dezan. Ez zaio gustatzen eta segituan moztzen du: soloaren laugarren

konpasaren hasieran eskua altxatzen du eta begiak guztiz zabaltzen ditu. Konpasa amaitzean, eskua jaisten du eta estribilloan sartzen dira.

Gitarra-joleari keinu bat egiten dio, estribilloan kontrapuntua abestu dezan, baina ez da beharrezkoa: berak ere ideia hori izan du. Mirenen hitz berak kantatzen ditu, baina Josebak asmatutako doinuan.

Bikain geratzen da. Pozarren daude denak, eta Josebak solo bat egiten du. Luzea da, konplikatua. Jazz, bossa, blues... hiru edo lau eskala tartekatzen eta uztartzen ditu. Barruan daukana adierazteko tekla nahikorik ez daukala ematen du. Soloaren bukaeran eskua altxatzen du eta, jaisten duenean, amaiera ikaragarria egiten dute, azken notari eutsiz.

– YEAAAHHH!!!!

Txaloak jotzen dizkiote taldekoek, txalo zintzoak. Joseba arnasestuka eta izerditan dago, eta ile beltza, koipetsu, aurpegiaren gainetik erortzen zaio. Betaurrekoak sudur-puntan dauzka, erortzeko zorian, lurrunduta.

– Hori bai, hori bai!! –esaten die, eta aterantz doa.

– Ona, Joseba, ona!! –oihukatzen du Mirenek, irribarrez.

– Orain kontrapuntuaren hitzak asmatu behar dituzue. Benga, gazteak, eman egurra!

Egongelako sofan esertzen da Coca Cola batekin eta zigarro bat egiten du. Ase dago, pozik.

Lotara amarenera joan beharko lukeela pentsatzen du. Biharko eguna gogorra izango da; hobe luke ohe batean etzan eta ondo bazkaldu.

Bideokontsolari begiratzen dio. “Bihar etorriko naiz etxera, ama”.

Larunbatean, lehen orduan (hots, musikari jendearen ordutegietan, arratsaldeko lauretan), ezagunak agertzen hasten dira. Heavyak, punkiak, rokerok, managerrak... mota guztietako bezeroak dauzka.

Manager batek koka mordoa behar du kanpoko pop-rock talde petardo batentzat.

Aspaldiko lagun rockero batzuek Josebarekin garagardo bat edan eta haxixa erosi nahi dute.

JKUkoek anfeta eta pastillak eskatzen dizkiote eta ekipoa kargatzen dute, kontzertua dutelako.

Eta, sorpresa, Buldozerreko abeslaria agertzen da, lehenengo lokalekoa, speeda erosteko. A ze azal lodia!

– Aizu, Riki, eta alokairua zer?

– Ostia, bai, Joseba, badakit. Hiru hilabete zor ditugu, badakit. Jo, eman beste hilabete bat.

– Zuk uste duzu ni airetik bizi naizela?

– Eske bakarrik geratu gara lokalean, ea konpartitzeko norbait topatzen dugun. Eske Brigadakoak...

– Deeenok daaakiguuu zeeer gertaaatu zeeen Brigada Suizidarekiin!! Eta ez diizueet alokaaairu osooa eskatzeeen, ez jaaarri aitzaaakia meeerkeeerik. Esan nizuen aalokaaaairu erdiia kobraaatzen segiituko nuela beeeste talde baaat topaaatu arte. Hurrengo hilabeteeean ez baaadidazeeue ordaaaintzen, zuen traaasteak kaleera ateerako diiitut. Ulertzeeen?

– Bai, Joseba, bai. Arrazoia– Rikik burua makurtzen du.

Josebari bihotza biguntzen zaio.

– Hala, tori –speeda luzatu eta dirua hartzen dio.

Trukea egitean, eskua dardarka nabaritzen dio. Josebak atzamar batekin kokotsa altxatzen dio.

– Benetan itxura eskasa daukazu, Riki. Seguru hori nahi duzula? –hauts horixka seinalatzen dio.

– Bai, bai. Bolada txar bat pasatzen ari naiz, hori da dena –begirada jaisten du berriro.

“Anfetajaleak, anfetajale betiko” dio Josebak bere artean, eta bere zereginekin jarraitzen du.

Azkenean, bakarrik geratzen da. Larunbat arratsaldeetan jende mordoarekin egin behar ditu negozioak, taldeak ekipoa kargatzera datoz, “utzi karretilla”, “baduzu kablerik soberan?”... Akituta dago. Sofan esertzen da, Coca Cola batek lagunduta. “Partidatxo bat eta banator etxera, ama”.

Atea kirrinkaz. JKUkoak dira, kontzertutik bueltan, ekipoa lokalean uzteko asmoz. Josebak erlojuari begiratzen dio: goizaldeko ordu bata jada!

Taldekoak Josebaren eta bideokontsolaren artean pasatzen dira anpliekin, gitarrekin, bateria-atalekin...

– Ostia, partida galduko dudala!

– Jode, Joseba, erdi-erdian zaude.

Orduan konturatzen da Riki, Buldozerreko abeslaria, beraiekin dagoela.

– Eta zuk zer egiten duzu hemen?

– Hauen kontzertua ikustera joan naiz eta deskargatzen lagunduko diet – eskuak praketako atzeko sakeletan sartzen ditu, urduri.

Eneko, balantzaka, sofan esertzen da, Josebaren aldamenean. Zurbil dago.

– Eta hau? –galdetzen die Josebak besteei.

– Buah –barre egiten dute–. Kontzertuan makina bat pastilla irentsi du eta orain blankoiarekin dago.

Oraindik kontzertuko arropa du jantzita: tirantedun kamiseta eta praka laburrak. Josebak izerdi-usain mikatza hautematen dio. “Bedeinkatuak, Jauna, hardcore taldeetako bateria-joleak, inork baino izerdi gehiago botatzen dutelako”.

Coca Cola bat ateratzen dio makinatik. Apur bat biziberritzen da. “Eskerrak”, pentsatzen du Josebak, jan dituen pastillak berak saldu baitizkie.

– Bueno, listo. Goazen, Eneko! –taldekoek ekipoa deskargatzen amaitu dute.

Eneko zutitzen da baina ezin du apenas ibili.

– Ei, ei, ei! Eseri berriro.

– Horrela ezin dugu etxera eraman. Gurasoek akabatuko dute. Hemen geratu daiteke, Joseba?

– Ni laster etxera joango naiz, eta ez zait gustatzen gauean hemen inor egotea, askotan esan dizuet.

– Mesedez, Joseba. Bihar goizean etorriko gara haren bila.

– Bale, ados! –amore ematen du, gogo txarrez–. Espero dut dena dagoen bezala aurkitzea astelehenean. Zeee astuuunaaak zaaareteeen!

– Benetako laguna zara!

Taldekoak badoaz eta Josebak Eneko ahalik eta erosoan esertzen du sofán. Gero bideokontsolarekin jarraitzen du. “Partidatxo hau amaitu eta banator etxera, ama”.

Eneko lo geratzen da, eta soina albo baterantz makurtzen zaio, etzanda gelditu arte. Josebaren gau-hontz begiek, betaurrekoek desitxuratuta, mugimenduari jarraitzen diote.

Mutikoaren aurpegia gero eta zurbilago dago: izerdia gorputzean hoztuko zitzaion, eta hori ez da ona. Joseba toalla baten bila doa komunera. Biluzten du eta izerdia sikatzen dio. Lo seko dago.

Ez du nahi, baina Enekoren gorputz gihartsuak dei egiten dio. Lehenengo toallarekin eta gero esku hutsarekin, bularra laztantzen dio; pektoral sendoak ditu. Besagaineko tatuajetik gerrira jaisten da. Zakila ez dago lo, jabearen moduan, baizik eta gerrarako prest. Atzamarrak zainetatik pasatzen dizkio. Enekok begiak parez pare zabaltzen ditu.

– Zer? Non nago? Zertan ari zara?

– Eneko, lasai, lokalean zaude. Lasai, ez da ezer –Joseba sofako beste puntara itzultzen da eta bideokontsolaren mandoa hartzen du disimuluan.

– Zertan ari zara? –Eneko, protestaka, zutitzen saiatzen da, baina oso ahul dago.

– Ixo, ez begiratu –Josebak etzanarazten du eta bere kamiseta aurpegian jartzen dio–. Oso ona kontzertua, Eneko, tralara-lara-larai.

“Kaka zaharra”, pentsatzen du Josebak, “espero dut bihar goizean honen akordurik ez izatea”.

Eneko manta batekin estaltzen du eta, haren alboan eserita, lokartu arte itxaroten du. Bien bitartean, zer egin ez dakiela, uzkia laztantzen du, bezperan The Black Magicians-entzat asmatutako doinua xuxurlatuz. Apurka-apurka, begiak ixten zaizkio berari ere.

“Klak!”. Bulegotik datorren hots batek kolpetik ateratzen du lozorrotik.

“Kutxa gotorra!” pentsatzen du Josebak. Charles Mansonen labana eskuan, astiro-astiro abiatzen da soinuaren sorlekura, sagu xume bat baino ez aurkitzeko esperantzarekin.

Bulegoa ilunpetan dago, baina Rikiren soslaia antzematen du. Kutxa gotorra manipulatzeko ari da. “Inutila, gero!”, pentsatzen du Josebak, labana jaitsiz.

– Zertan zabiiltza, paaapau halakooooaaa!?

Rikik sekulako sustoa hartzen du, eta, panikoa gidari, ihesari ematen dio. Dagoen argi apurra bulego kanpotik datorrenez gero, ez du Joseba ikusten eta bere korrikaldian aurretik eramaten du. Josebak, azken momentuan, labanaren orriari buelta ematen dio, bere buruari begira, Riki ez zauritzeko.

Rikik abiadura handia darama eta sofaren kontra bultzatzen du Joseba, biak Enekoren gainean erori arte. Riki alde egiten saiatzen da, baina Josebak eskumuturretatik oratu eta mendean hartzen du. Belauna bularraren kontra jartzen dionean, ikusten du labana izterraren barrualdean sartu zaiola.

– Begiiraaa zer egiin didazuuun, aluuu horreeek!!

Mahai txikian dagoen musika-aldizkari potolo bat tutu forman kiribildu eta buruan kolpeka hasten zaio, baina Riki besoekin babesten da. Josebak belaunkadak nabaritzen ditu saihetsetan.

Laster, Joseba indarge dago: arteria femorala erdibituta dauka. Riki bultzatu eta zerraldo erortzen da sofan. Eskua labanaren inguruan ipinita, taupadak nabaritzen ditu, zauria bizirik balego legez.

– Txo, zuri-zuri zaude –Rikik izututa begiratzen dio.

“Odolusten ari naiz”, pentsatzen du Josebak.

– Nahi gabe izan da, Joseba...

– Egon ixilik eta deitu anbulantzia bati.

Riki ez da mugitzen: sasi artean deskubritu duten katagorri bat dirudi, geldigeldi egon edo ziztu bizian handik atera erabaki ezinik.

– Lagundu...

Azkenean Rikik erreakzionatzen du. Komunera doa eta speed marra bat jartzen du. Marra baino, sugea dirudi, eskuak dardarka dituelako. Aurpegia konketan garbitzen du, eta ispiluak galdetzen dio: “Ze ostia egiten duzu oraindik hemen?”.

Egongelara bueltatzean, Joseba sofan eserita dago, igeltsua baino zuriago, betaurrekoak sudur puntaraino erorita. Ahoa eta begiak zabalik ditu. Bi

eskuekin zauria estutzen du, hemorragia eten guran, baina biziak burrustan ihes egiten dio zulotik. Hankartean, izugarrizko odol putzu iluna.

Haren aldamenean Eneko dago etzanda, mantaz estalita. Josebak aurpegian ipini dion kamiseta eskuetan dauka eta itzarrik dago.

– Hil duzu, Riki. Ikusi zaitut. Hiltzailea...

– Ez. Eneko, bera etorri zait aiztoarekin. Istripu bat izan da.

– Hiltzailea... –Enekok apenas du indarrik hitzak ahoskatzeko.

Riki Enekorengana hurbiltzen da eta, haren ondoan belaunikatuz, kamiseta kentzen dio eskuetatik.

– Eneko, Riki naiz. Neu naiz. Zelan pentsa dezakezu...?

– Kontatuko diet...

Rikik, hortzak estutuz, sudurra eta ahoa ixten dizkio kamisetarekin. Negarrez dago. Enekok ez du borrokatzen; ezin du.

Mugitzeari uzten dionean, Rikik, samurtasunez, kamisetarekin estaltzen dio aurpegia, eta mantarekin gorputza. "Sentitzen dut".

Sofatik jaikitzean, ordea, esku batek tiraka egiten dio besotik: Joseba da. Betaurrekoen barrenetik, bere begi biribilak iltzatzen dizkio.

Rikik egundoko sustoa hartzen du eta salto batez urruntzen da, besoa askatuz.

Iruditzen zaio Josebari minutu gutxi geratzen zaizkiola mundu honetan. Zorte apur batekin, bi hilotzak aurkitzen dituztenean ondorioztatuko dute Eneko gaindosiz zendu dela eta Josebak, erruak bultzaturik, bere buruaz beste egin duela.

Ikarak eta anfetaminak handik ateratzeko egiten dioten presioaren aurrean, Rikik bere burua konbentzitzen du hori izango dela poliziak aterako duen ondorioa. Are gehiago, bere buruari sinestarazten dio horixe gertatu dela.

Atea ireki, eta dena uzten du Josebaren nabea, bi gauza izan ezik: inoiz abandonatuko ez duen adikzio bat eta inori kontatuko ez dion sekretu bat.

Josebak lausotuta ikusten du dena. Altxatzen saiatzen da, baina giharrek ez diote erantzuten. Zauriak hanka erretzen dio.

Bere sofatik, nabeko atea Rikiren atzean apurka-apurka ixten ikusten du, bere kurrinka-hots berezi horrekin, eta pentsatzen du azkenean ez dituela bisagrak koipeztatu eta laugarren lokaleko obra amaitu gabe daukala.

Betazalak teloi astun baten moduan ixten ari zaizkio. Loaldi goxo batera abiatu aurretik, esku bat labanaren kirtenean pausatuta, bestearekin betaurrekoak kentzen ditu eta, bere azken hatsarekin, xuxurlatzen du:

– Ama..., hau apur bat txukundu eta banator, banator etxera, ama.

PARETAREN BESTE ALDEAN

KENDUZAITEZHORTIKMEMELOHALAKOA!

Ia-ia bihotzekoa izan du Auritzek. Ondoko paretatik noizbehinka datozen orroak ahaztuta izan ditu azken bizpahiru egunetan. Barre egiten dio bere buruari. “Edozerekin beldurtzen naiz...”.

Ondoko etxebizitzan bi senar-emazte edadetu bizi dira. Edadetuak bai, baina andreak hogei urteko neskata batek baino argiago dauka burua. Gizona, koitadua, ez da ezertarako gauza, edo hori uste du Auritzek, ez baitu sekula ikusi. Emakumearekin bakarrik egin izan du topo, noizbehinka (eskerrak), erosketa-karro zahar eta astun bati tiraka, hogei urteko neskata baten indarrak. Eta etxean, haren ahotsa entzuten du, trumoiak baino bortitzagoa, senarrari kristorenak eta bi esaten.

Noizbait zer edo zer esatea pentsatu du. Nola trata dezake bere senarra hain modu itsusian? Horrenbeste ospintzen dira harremanak denboraren joanean?

Jakin-minez, belarria paretara itsasten du, baina ez da oihu gehiago entzuten. Arnasketa astun eta geldo bat baino ez. Andrea ote? Senarra ote? Bere azken hutsa botatzen ari ote da gixajo hau?

Pentsamendu negatiboetan murgilduta ikusten du bere burua beste behin ere, eta pareta madarikatu horretatik ihes egin nahi du. Arratsaldeko txanda dauka ospitalean eta prestatzen hasi behar du.

Iluntzean Ander dator lotara. Azken orduko sorpresa izan da: Anderren semeak emazte ohiaren etxean geratu nahi izan duenez, gaua libre dauka. Pelikula bat ikusten ari direla, Auritz lo gelditzen da.

– Benga, txiki, goazen ohera– xuxurlatzen dio Anderrek belarrian.

Logelarako bidean Auritzek ozta-ozta irekitzen ditu begiak. Laster amets gozotan dago, bere mutilaren besotan, lo sakonean.

BUM!

Ondoko hormaren dardarak asaldatzen du. “Ze demontre?!”. Anderrek lo segitzen du. Auritzek begiak ixten ditu eta, loak hartzeko zorian dagoela, berriro:

BUM!

EGONZAITEZGELDIBEHINGOZ!

Oraingoan biak esnatzen dira.

– Zer izan da hori? –xuxurlatzen du Anderrek.

– Ez dakit. Ondoko zaharrak.

– Jode, elkar akabatuko dute! –dio, umoretsu.

Auritzek irribarre egiten dio baina pixka bat kezkatuta dago. Atsedean hartu nahi du eta bat-bateko kolpeek ikaratzen dute.

“Bihar zerbait esango diot. Bihar zerbait esango diot”.

Azkenean lo geratzen da, kostata.

Ander goiz jaikitzen da lanera joateko eta Auritzek ezin du lo gehiagorik egin. Ez du ondo deskantsatu, eta biharamunean txanda aldaketa dauka: arratsaldekoa utzi eta gauekoa egokitzen zaio.

Gosaltzen duen bitartean belarriak erne ditu, ea ondoko bizilagunak entzuten dituen. Nolabaiteko egonezina du: ez daki adorerik izango duen zerbait esateko.

Arazoa burutik kentzen saiatzen da eta lasterka egiteko janzten da: ondo etorriko zaio gorputza aktibatzeke eta burua freskatzeko.

Igogailuaren zain dago, beroketak egiten. Atea irekitzen denean, etxe ondoko andrea aurkitzen du aurrez aurre, supermerkatuko poltsa bana eskuetan. Irribarre zabal bat eskaintzen dio:

– Egun on, laztana.

– Egun on.

Igogailuan, bere buruarekin haserretzen da. Nola ez da kapaz izan ezer esateko!?

Korrikaldian, auzokoari aurre egiteko indarrak biltzen ditu. Amsterdamen erizaintza ikasi zuen garaia etortzen zaio gogora: bere orduko mutil-laguna uzteko erabakia halaxe hartu zuen, Rembrandtparken egin zuen bira batean.

Etxera bueltan, arnasa hartu eta ondoko bizilagunen txirrina jotzen du. Eskua dardarka dauka.

Ez da ezer entzuten. Lasaituta, bere aterantz doa, eta une horretantxe atsoarena irekitzen da.

– Bai?

Auritzek ez daki zer esan.

– Atez erratu zara, laztana?

– Ez, ez. Zera, eskatu nahi nizuen... Ni erizaina naiz. Txandaka lan egiten dut, eta lo egin beharra daukat. Batzuetan zaratak entzuten ditut eta...

– Ai, laztana. Bai, arrazoi duzu, batzuetan eztabaidatzen dugu. Nire senarra guztiz gor dago eta altu hitz egin behar diot. Baina kontuan izango dut, bai? –eta atea ixten du.

Auritzek sentimendu kontrajarriak dauzka: batetik adrenalinaz gainezka dago, ausartu delako pozik. Bestetik, atsoak ziria sartu diola uste du. Hitz politak bai, baina hori baino ez. Senarra gorra dela? Bai, zera.

“Zin dagit: gaueko txanda daukadanean entzuten baditut, berriro etorriko naiz”.

Gaueko txandako lehenengo egunetik bueltatzen denean, oso gaizki egiten du lo. Beti gertatzen zaio. Urduri eta umore txarrez dago. Lagunei zakar erantzuten die, gurasoei ere bai... Ander ohituta dago.

Hirugarren goizean, lanaren ondoren, etxera iritsi eta zerraldo etzaten da ohean. Hainbat orduz lo egiten du segidan. Itzartzean, indarberrituta dago. Ohea beretzat bakarrik dauka, eta gorputz-atal guztiak luzatzen ditu, itsas

izar baten moduan. Eguerdiko planaz pentsatzen hasten da: korrika egin, gurasoenera bazkaltzen joan eta...

BUM! BUM! BUM!

Sekulako saltoa egiten du ohean. “Baina zer da hori?” Belarria hormari itsasten dio. Oihuak entzuten dira, baina ez du tutik ulertzen. Ezin du sinetsi emakume goxo hura denik agirika ari dena.

Zer egin? Ondo egin du lo eta gauean ez da etxean egongo. Egia esateko, ez dio merezi...

BAINAZEKRISTO...

BUUUUMMMM!

Aski da. Ohetik altxatu, jantzi eta ondokoen atea jotzen du. Erabakita du ez diotela adarra joko. Kopeta zimurtzen du, bere burua konbentzitzeko.

Andrea ateratzen da, txabusina eskuarekin itxita duela.

– Ai, barkatu, laztana. Zarata egiten ari gara, bai. Nire senarra...

– Ez, andrea. Zure senarra ez dut entzuten nik. Zure deiadarrak baino ez, eta kolpeak. Zure senarraren egoeraz kezkatuta nago, egia esateko.

“Horra, esan diot”.

Andrea etxetik irteten da, atea bere atzean erdi zabalik utzita.

– Konplikatua da, neskato. Gauzak ezin dira horrela bota, jakin barik.

– Jakin barik? Nik nire lanagatik tratu txarren egoera asko ikusi ditut, eta badakit identifikatzen... –Auritz harrituta dago bere kemenarekin; psikoanalistari kontatu beharko dio.

– Tratu txarrak? Hemen ezin dugu hitz egin, baina harrituko zinateke...

– Ba kontatu! –Auritzek ez du aukera alferrik galdu nahi, ez baitaki beste batean ausartuko den.

Emakumeak ingurura begiratzen du.

– Nire etxean hitz egingo dugu– gonbidatzen du Auritzek.

– Kafe hutsa, orduan? Azukre koskor birekin?

– Eskerrik asko.

Andrea lasaiago dago. Eskuak katiluarekin berotzen ditu.

– Ni Isabel naiz. Nire senarra lerdoa da. Baina benetan lerdoa. Iktus bat.

>>Gu baserrikoak gara. Han geneukan bizitza. Etxean problema bat izan genuen eta, harrezkero, Antonio depresioan murgildu zen. Tira, bakarrik esango dizut gure txerri batek istripu larri bat eragin ziola herriko txerri-hiltzaileari. Gertatu zenean, Antonio ez zegoen han.

>>Kontzientzia txarra zeukan horregatik. Herrian seinalatzen gintuzten. Antoniori izaera garraztu zitzaion. Edaten eta niri agirika ematen zuen egun osoa. Gerora, ni jotzen hasi zen. Azkenean, niretzat normal bihurtu zen. Nik berdin maite nuen.

>>Antoniok erretiroa hartu zuenean, hemen jarri ginen bizitzen. Duela urte batzuk iktusa izan zuen; uste dut zu hona etorri baino lehenago izan zela. Harrezkero, lerdotuta dago. Dena egin behar diot nik. Dena.

>>Zuk badakizu zer den egun batetik bestera herri guztiak zu seinalatzea, lagunak galtzea, jendeak mesfidantzaz begiratzea? Eta gero senarrak egurtzea? Mozkorrenen mozkorraz eskaileretatik eroriko ote den beldurrez egotea? Hurrengo urratsarekin berak min hartuko zuen edo niri min emango zidan jakin gabe bizi nintzen.

>>Eta orain txita bat dirudi. Bere habian, negarrez, amari deika, ezer egiteko gauza ez dela.

>>Ni lehen gizon baten zerbitzaria nintzen eguneko 24 orduetan. Orain, 80 kiloko ume batena. Beraz, bai, batzuetan nerbioak galtzen ditut, oihukatzen diot eta gauzak lurrera botatzen ditut. Baina maite dut, eta nire eginbeharrak betetzen ditut.

>>Ez duzu ulertzen, ezta? Zuk zure ikasketak dituzu, zure lana, zure etxea. Ez duzu gizon baten beharrik. Noizean behin etortzen zaizun tipo hori ez bada.

>>Ba pozten naiz zugatik. Pozten naiz hain ederra izateagatik, zure kezka nagusia soinekoaren kolorea izateagatik, eta hain ile-adats polita edukitzeagatik. Baina, besteak epaitu baino lehen, jarri zaitez beren lekuan. Ados, laztana?

Altxatu eta, apurka-apurka, bere etxera abiatzen da.

Auritz eserita gelditzen da. Ez daki zer pentsatu. Ez daki txarto sentitu, haserretu, negarrez hasi, barre egin... Minduta eta lotsatuta dago.

Gauza bat bakarra daki: gaur ezingo du lorik egin.

Auritz arratsaldeko txandan dago berriro. Ahal duenean, Anderren etxera joaten da gaua pasatzera. Bestela, gurasoenera. Erabaki du ez duela etxean lo egin nahi. Bolada batez behintzat.

Bart Anderrenean egin du lo eta nekatuta dago. Sexu-saio ikaragarria izan zuten, eta gero berandura arte aritu ziren berriketan. Ander goiz esnatu da lanera joateko eta Auritzek ezin izan du lotan jarraitu.

Bere etxera etortzea erabaki du, kirola egiteko arropa jantzi eta etxe ondoko parkean korrika pixka bat egiteko, nerabe porrero, presa-txakur eta jubilatutartean.

Bueltan, atea zabaltzen ari dela, ondoko atea entzuten du. Instintiboki, erne jartzen da.

– Auritz, laztana, egun on.

– Egun on, bai– burua makurtzen du.

– Asteon ez zaitut sentitu. Kanpoan izan zara?

– ...

– Barkamena eskatu gura dizut aurreko egunekoagatik. Nire egoera ez da zure arazoa, ez zure errua. Baina ez zait juzgatua izatea gustatzen.

– Tira, lasai. Ez naiz zure bizitzan sartuko, baina mesedez, ez atera iskanbilarik
–dio Auritzek irmo, etxean sartuz.

– Hilzorian nago.

Auritzek ez daki zer esan.

Buelta ematen du.

– Hilzorian?

– Winstonen gaixotasuna daukat. Terminala da.

– Nola terminala? Noiz jakin duzu? –Auritz begiak malkoz betetzen zaizkio eta bere etxean sartzeko keinua egiten dio eskuarekin.

Bi azukre koskor botatzen dizkio kafean, aurrekoan bezala.

– Medikuek ondo portatu ziren nirekin. Proba batzuk egin eta gaixotasuna hauteman zidaten.

– Ez dut sekula entzun gaixotasun horren berri. Baina ziur ez daukala sendabiderik?

– Berez birus bat da. Gerta daiteke gorputzean lozorroan egotea bizitza osoan, norbera konturatu gabe. Edo baliteke aktibatzea: orduan hilgarria da ia beti. Dagoen tratamendu bakarra kimioterapia da, baina ez dute emaitza ona ziurtatzen.

>> Medikuek tratamendu prebentibo bat egiteko aukera eskaini zidaten, kimioterapia emanez, baina une horretan nik uste nuen nire eginbeharra Antonio zaintzea zela. Kimioterapiarekin, ordea, ordu luzez egon beharko nuen etxetik kanpo. Oso ahul egongo nintzen, nik neuk zaintzaile bat beharko nuen. Bideraezina zen.

– Nolatan bideraezina, Isabel? Bizitzea bideraezina? Barkatu, baina astakeria bat iruditzen zait.

Isabeli aurpegia garrazten zaio une batez, baina Auritz ez dago amore emateko prest.

– Ez duzu ulertzen, laztana. Zuek... zuek ez dakizue zer den sakrifizioa, besteentzat bizitzea. Zerbaitek ez badu funtzionatzen, zakarrera bota eta berria erosten duzue. Bai tramankuluak, bai pertsonak. Ez dakizue maitasuna zer den.

– A, hori ez dizut onartzen, Isabel. Beste garai batekoa zara, bai, bizitza gogorra izan duzu, ados. Baina maitasuna ez duzue zuek asmatu.

– Laztana, maitasuna sufrimendua da. Oraindik ez badakizu... En fin.

Auritz muturtuta dago. Ez du eztabaidatu gura, baina ez dago edozer onartzeko prest. Aitak esan balio, tira, baina arrotz batek...

– Dena den, Isabel, ez dut zure jarrera ulertzen. Nola zaindu nahi zenuen Antonio, gaixotuz gero? Esan duzu gaitza gehienetan hilgarria dela. Bueno, garatzen baldin bada behintzat.

– Garatzen baldin bada behintzat. Horra hor gakoa. Bazitekeen gaixotasuna garatzea edo ez garatzea, eta ni arriskatu nintzen. Eta galdu dut.

– Eta... zein zen zure B plana? Nola zainduko duzu Antonio?

Isabelek desafiozko irribarre bat eskaintzen dio. Aurpegi ederra du.

– Neska azkarra zara. Asmatuko duzu –aulkitik altxatzen da–. Eskerrik asko kafeagatik. Oso ona.

Atartean buelta ematen du.

– Auritz, txandaka lan egiten duzu, ezta?

– Bai.

– Ez dago ordu bat egunero etxean egoten zarena?

– Ez, batzuetan lanean nago, bestetan kirola egiten, edo... zera... Anderrekin.

– Oso ondo, laztana. Hara, entzun: Antoniok eta nik borrokan egiten dugu egunero arratsaldeko zortzietan.

– Bai? Ez naiz konturatu hain puntualak zaretenik. Baina ezetz esango nuke, ze aurrekoan juxtu ordu horretan peli bat ikusten ari ginen eta ez genuen ezer...

– Egunero arratsaldeko zortzietan, laztana. Gogoan izan –eta begiarekin keinu bat egiten dio.

Hurrengo astean Auritz goizez dago lanean. Jende normalaren ordutegia, ze poza! Halakoetan, bizitza doble aprobetxatzen duela iruditzen zaio. Denetarako astia ematen dio, baita sukaldea garbitzeko ere. Bueno, beti dauka zerbait hobe egiteko sukaldea garbitzea baino, egiaz.

Lehenengo egunean, ospitaletik bueltan, bazkaldu (ordu normal batean bazkaldu) eta arratsaldean erosketa batzuk egitera doa. Etxera itzultzen denean, egongela pixka bat txukuntzen du. Pixka bat.

BUM BUM BUM!!

Salto egiten du, ikararen ikaraz.

“Ze ostia! Ez dira orduak”, erlojua begiratzen du. 20:00.

“Ez da posible!”, barrea irteten zaio. Eta hiru kolpe jotzen ditu horman. Belarria ipintzen du paretaren kontra, erantzunaren zain, baina ez du ezer aditzen.

Hurrengo egunetan, arratsaldero, zortziak baino lehen hormaren ondoan egoten da, hiru danbatekoen zain. Eta egunero, puntual-puntual, entzun egiten ditu. Baita erantzun ere.

Gaueko txanda daukanean, bederatzietan irteten da etxetik ospitalera joateko. Beraz, zortzietako kolpeek lanerako prestatzeko errutina markatzen diote. Aditzen dituenean, erantzun, eta bere martxa hasten du: uniforme atera, tupperra gorde, dutxatu...

Ahotsak gero eta gutxiagotan entzuten ditu, ostera, eta gero eta baxuago. Bolumena jaisten doala dirudi. Pixka bat arduratzen da.

Goiz batez atea jotzen die. Ez dago erantzunik. “Agian erosketak egiten ari da”.

Alde egitera doanean, atea irekitzen da. Isabelek itxura makala dauka.

– Isabel, ondo al zaude?

– Bai, laztana. Nekatuta bakarrik.

– Ez duzu aurpegi ona, Isabel. Ospitalera eramango zaitut.

– Ez, ez. Ezin dezaket Antonio hemen utzi. Han luzaro edukitzen naute.

– Momentu bat izango da. Uniformez joango naiz.

Ospitaleko bidean, Auritzek galdetu behar diola sentitzen du:

– Isabel, sakrifizio hau guztia... Barkatuko didazu, baina ez dut ulertzen. Antoniok jo zaitu, umiliatu zaitu...

– Bai, laztana. Baina maitasunez. Guztiaren gainetik, elkar maite dugu.

– Ez dut ulertzen, ezin dut ulertu. Nik ez nioke sekula minik egingo maite dudan norbaiti.

Ospitalean, albisteak ez dira onak. Auritzek Isabelen medikuarekin hitz egiten du eta hark Isabelek kontatutakoa berresten du. Andre egoskorra da eta ez zuen tratamendu prebentiboa onartu. Medikuak uste du dagoeneko gaitza oso garatuta dagoela, baina Isabelek ez dio uzten analisirik ez probarik egiten.

– Tira, bere eskubidea da. Laguna duzu?

– Bai. Eskerrik asko.

Etixerako bidea oso tristea da. Auritz burumakur doa.

– Eskerrik asko kezkatzeagatik, laztana. Ikusten duzunez, primeran nago – Isabelek irribarre bihurria du aurpegian—. Tori, etxeko giltzen joko hau utzi gura dizut. Badaezpada, Antonio eta biok parrandan irten eta giltzak galduko bagenitu... badakizu.

Auritzek indarrez besarkatzen du.

– Ez ahaztu Antoniorekin borrokatzeaz, Isabel.

Ospitaletik datorren iluntze batean, giltzak poltsotik ateratzean erori egiten zaizkio. “Kaka!”, oso nekatuta dago, ez da geldirik egon txanda osoan. Giltzak jasotzen dituenean, orrazia ere erortzen zaio. “Kaka zaharra!”. Orraziari begira geratzen da, batu edo ostikada bat eman erabaki ezinik.

Bat-batean, isiltasunaz jabetzen da. Isabel eta Antonioren ateari begiratzen dio. Belarria jartzen du. Isiltasuna. Kezkatu beharko litzateke? Etxean, dutxara sartzen ari dela, oihuak entzuten ditu.

LERDOAMUGIZAITEZ!

Lasaitu ederra hartzen du.

Gaurkoan, hiru txanda jarraituen azken eguna izan du. Horrek esan gura du eguerdirako, goizeko txanda bete ostean, emakume librea izango dela

astebetez. Zazpi eguneko oporrak. Arratsaldean erosketak egiten ditu mutil-laguna afari berezi bat egitera gonbidatzeko.

– Lehentxoago joango naiz eta ardo bat hartuko dugu. Albariño botila bat oparitu dit bezero batek– esaten dio bere Romeok.

Ander zazpitan agertzen da, puntual-puntual, botilarekin eta lore-sorta batekin. Handik gutxira, elkar jaten ari dira lurrean.

– Zelako larrutada!– Ander izerditan dago eta, betiko moduan, exajeratzen.

Auritzek irribarre egiten du. Txortaldi bikaina izan da, bai, Ander atetik sartu eta... "Ostia, ze ordu da? Zazpiak eta berrogeita hamabost! Ufa, eskerrak".

Kuleroak eta kamiseta jantzi eta sofán esertzen da, Isabelen hormaren ondoan.

– Ei, txiki. Nora zoaz? Ez duzu nirekin egon nahi? Bohemioegia da zuretzat lurrean larrua jotzea ardo botila batekin? Egia esan, kandela batzuk baino ez genituen beh...

– Ixo!

– Berriró zaraten kontuarekin? Zoratu egingo zara azkenean.

– Mesedez, Ander.

– Baleee. Bueno, bainu bat hartuko dut. Zure gorputzeko likidoak... Bale, bale isilduko naiz, ja ja ja.

Anderrek bainua hartzen duen bitartean, Auritzek belarria hormari itsatsita dauka. "Zortziak eta hamar dira. Zerbait ez doa ondo".

Pijama jantzi eta Isabelen giltzak hartzen ditu. Dardarka irteten da etxetik.

Txirrina jotzen du. Erantzunik ez. Berriró saiatzen da. "Mesedez, Isabel, zabaldu atea. Zabaldu atea ez tulka, ahotik odoletan, indarrik gabe. Irten zaitez gainean kaka eginda, aurpegiko azala orbanetz beterik. Baina, arren, zabaldu atea". Erantzunik ez.

Giltza sarrailean sartzen du. Berehala irekitzen da.

Ez du etxea ezagutzen, baina distribuzioa berearen modukoa da.

Pasilloan barrena doa, "Isabel?" esanez. Badaki egongelan sartu behar dela. Badaki egongelan zer topatuko duen.

Antonio, orain arte ezagutu ez duen gizona, sofán eserita dago. Begiak itxita, ahoa zabalik. Altzoan janariz betetako erretilu bat dauka. Bularra zartatuta du, odolez blai. Urte askotarako, Antonio.

Haren aurrean, besaulki batean, Isabel. Ustez. Eskuetan ehiza-eskopeta bat dauka, eta berak ezagutu zion aurpegi zimurtu baina ederra, aurpegi zigortu baina bizia, ez da existitzen. Haren ordeztu, odolezko eta hezurrezko anabasa bat.

Goizean egingo zuen, Auritzek ez baitu arratsaldean ezer entzun.

Aulki batean esertzen da eta lasaitasun osoz begiratzen die. “Antonio, hau Isabel duzu. Bizitza osoan maitatuko zaituen emakumea. Aberastasunean nahiz pobrezian. Osasunean nahiz gaixotasunean. Gure belaunaldiak ezagutuko ez duen modu batean. Amen”.